

GRADUA: EKONOMIAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

LANALDI ETA EKOIZPEN GAITASUNAREN ARTEKO DIBERGENTZIA LANORDUEN IBILBIDE HISTORIKOA, JOERAK ETA AUKERAK

Egilea: Beñat Zelaia Barandiaran

Zuzendaria: Mertxe Larrañaga Sarriegui

Bilbo, 2019ko ekainaren 27a.

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. LANEGUNAREN DETERMINAZIOA MERKATU KAPITALISTAN	2
2.1. Gainbalioaren sorrera kapitalaren funts bezala.....	2
2.2. Lan indarra merkantzia bezala	5
2.3. Lan indarraren balioa	6
2.4. Lanegunaren hazkundera gainbalioaren ustiaketarako	8
3. LANEGUNAREN BILAKAERA HISTORIKOA	10
3.1. Laneguna Ekoizpen Modu Aurrekapitalistetan	10
3.1.1. Laneguna Komunismo Primitiboan	10
3.1.2. Laneguna Esklabismoan	13
3.1.3. Laneguna Ekoizpen Modu Feudalean	15
3.2. Laneguna Kapitalismoan	17
3.2.1. XIV. mendetik XVII. mendera: Lan orduen hazkundera.....	20
3.2.2. XIX. mendetik I. Mundu Gerrara: Lan orduak murrizteko legedia	21
3.2.3. Gerrarteko garaia eta 29ko Crack-a: Lanorduen murrizketa estrukturala.....	23
3.2.4. II. Mundu gerra eta <i>ongizate estatuaren</i> hedapena	25
3.2.5. 1973ko krisia eta produktibitate-ordainketa tartearen dibergentzia.....	26
3.2.6. 2008ko krisiaz geroztiko joerak.....	30
4. LANORDUEN JOERAK ETA HONEN INGURUKO EZTABAIDAK.....	31
4.1. Lanorduek murriztearen aukerak eta eztabaidak	34
5. ONDORIOAK	36
6. BIBLIOGRAFIA	37

1. SARRERA

Lanaldien luzapenak gure bizitzaren zatirik handienetarikoa osatzen du, eta ulertzeko erraza den moduan gizakion ardura nagusienetarikoen artean daude lanaren inguruan ematen direnak. CISen 2019ko makorbarometro baten arabera adibidez, Hego Euskal Herriko biztanleentzako arazo nagusia langabezia zen.¹ Ildo berdinetik, lanaldiak gure bizitzaren horrenbesteko tarteak okupatzen digularen jakitun, langile mugimenduaren nagusienetarikoa izan da lanaldia murriztearen aldarria, bizitzako denbora finitua gainontzeko jardueri eskaini ahal izateko helburuarekin. Orohar, industrializazio hasierako garaietan ematen ziren lanorduak baino lanordu murriztagoak ematen dira egun, egondako produktibitate hazkundeak ekarritako ekoizpen gaitasun hedatuak honetarako baldintza materiala ezarri duelako. Ala ere, produktibitate hazkunde honek ekarri dituen lanaldiak aurreko mendeen John Maynard Keynes ekonomialariak egindako iragarpenetatik urrun daude oraindik.²

Lan honen helburu orokorra lanaldiek izan duten bilakaera eta gizarteak sortutako ekoizpen gaitasunek bermatu dezaketen lanaldiaren inguruan hausnartzea da. Lana burutzeko bilaketa bibliografikoan oinarritu naiz, aspektu ezberdinak aztertuz ekonomia politikoaren kritika marxistaren ikuspegitik.

Hasiera batean, azken mendeetan emandako fenomenoaren zergatiak ulertzeko, ekoizpen modu kapitalistan lanaldia determinatzen duten aldagaien inguruko azterketa egingo dugu, batez ere Karl Marxen *El Capital* eta Rosa Luxemburgoren *Introducción a la economía política* lanen hausnarketetan oinarrituta. Honen bidez beharrezko lana, gainlana edota soldata erlatiboa bezalako kategoriak finkatuz.

Behin hau eginda, eta ikuspuntu historiko zabalago batek ematen duen ikuspuntu erlatiboa edukitzea helburu, kapitalismo aurretiko ekoizpen modu ezberdinetan lanaldiek izandako bilakaera aztertzeraz pasako gara. Historialari ezberdinen lanak oinarri, historian zehar lanaldiaren ikuskera eta luzapen ezberdinak ezagutuz.

Ostean, kapitalismoan zehar egondako bilakaera aztertzerakoan, lanorduek izan duten ibilbidea ikusiko dugu produktibitate, ekoizpen gaitasun eta soldata erreal zein erlatiboa bezalako aldagaiekin alderatuz. Analisia batez ere herrialde industrializatueta zentratuta izango da, herrialde hauek duten informazio osatuagoek analisi zehatzago bati bide ematen baitio. Estatistika ezberdinak aztertuta, lanorduen bilakaeraren zergatiak ulertu ahal izateko eta bilakaera honen atzean dauden oinarriek eskaintzen dituzten aukeren inguruan hausnartzeko tresna analitikoak eskuratuko ditugu.

Azkenik, ondorioen azalpena egin baino lehen, lanegunek izan dituzten joeren arrazoiak ulertzeko funtsezkoak diren aldagaien inguruan hausnartzeaz gain lanaldien forma ezberdinak ikusiko ditugu, Lanaren Nazioarteko Erakundearen *Working Time Around the World* ikerketa oinarri hartuta. Honen bidez lanaldietan, hauen murrizketaren ikuspegitik, eman daitezkeen aldaketan eta hauek ekarriko lituzkeen eraginaren inguruan hausnartzeko.

¹ CIS (2019a, 2. or) eta CIS (2019b, 3. or)

² Keynesek (1933, 369.or) emandako konferentzia batean, hurrengo mendeen emango zen produktibitateari esker asteen 15 orduko lanaldia posible lizatekela azaldu zuen.

2. LANEGUNAREN DETERMINAZIOA MERKATU KAPITALISTAN

1919ko otsailaren 5ean “La Canadiense” bezala ezaguna zen Riegos y Fuerzas del Ebro enpresa elektrikitik 8 langile kanporatuak izan ziren Bartzelonan, soldaten jaitsiera baten aurrean CNT sindikatuarekin harremanetan jarri eta gero. Elkartasunez enpresa honetako sekzio bereko gainontzeko langileak grebara jo zuten eta ondoren enpresako gainontzeko sekzioak batu zitzaizkien. Greba, sektore elektriko guztian zabalduz joan zen eta otsailaren 17rako ehun-industria ere batu zen grebara.

Egoeraren ezegonkortasuna zela eta, Gobernuak gerra egoera ezarri zuen martxoaren 12an eta 3.000 grebalari inguru atxilotuak izan ziren.³ Greba sektorial hura, Bartzelona osotik zabalduz joan ondoren, greba orokor bilakatu zen. Ordurako, Bartzelonatik kanpo ere Estatuko hainbat zonaldeetara hedatzen hasia zen. Gobernuak larrituta zegoen jada grebak hartzen ari zuen dimentsioarengatik eta patronalari akordio bat iristeko beharraz ohartu zion. Martxoaren 17an akordioa eman zen langile eta patronalaren artean, hurrengo baldintzekin besteak beste: Kanporatu guztien bionarpena, atxilotuen askatzea, soldaten igoera eta 8 orduko lan egunaren ezarpena.⁴

Greba historikoa izan zen hura, horren ondoren espainiar Estatuan 8 orduko lan eguna ezarri zen dekretuz. Sobietar Batasunaren salbuespenarekin,⁵ langa hau ezartzen zuen lehen estatu europarra bilakatu.⁶ Ondoren etorriko zen Frantzia 8 orduko lanaldia ezarri zuen legea, halaber, Lanaren Nazioarteko Erakundearen lehen konbenioa eragin zuena. Konbenio honek, lehen aldiz, hainbat herrialdeetan lortutako 8 orduko langa hori nazioarte mailan zabaltzea bilatzen zuen.⁷ 8 orduko lan egunaren ezarpen legalak ordu efektiboaren aldaketa zuzena ekarri ez arren, muga hori bilakatu zen lan egun normalaren langa imajinario kolektiboan, gutxienezko desiragarri bezala.

Dena dela, lanegun historikoaren determinazioa logika ezberdinen ondorioa izan da, historian zeharreko ekoizpen modu ezberdinetan modu erabat ezberdinetan zehaztu baita. Egun 8 orduko laneguna *arrunt* bezala jo dezakegun arren, historian zeharreko lanegunak, ikusiko dugun bezala, asko aldatu egin dira. Egun *arrunt* izatera pasa diren lanegunak beraz nola determinatu diren eta ekoizpen modu aurrekapitalistetan eman diren lanegunekin alderaketa bat egin ahal izateko garrantzizkoa da merkatu kapitalistan laneguna determinatzen duten legeak aztertzea. bertan ematen den logika eta baldintzak aztertuz. Horretarako kapitalismoa mugiarazten duen funtsa zein den azertu ondoren lan indarra merkantzia bezala saltzeko baldintzak, honen balioa eta honek lanaldian duen eragina aztertuko dugu.

2.1. Gainbalioaren sorrera kapitalaren funts bezala

Kapitalismorako garapenarekin eta honen hastapenerako eman zen desjabetzearen ondorioz sortu zen langile klasea zentzu modernoan. Klase hau, bere kabuz bizitzeko beharrezko

³ Marinello Bonnefoy (2014, 392. or)

⁴ Sirvent (1981, 346-360. or)

⁵ Zeinak 1917ko urriko iraultzaren ondorengo neurrien artean, lehen dekretuetako bat izan zen “Lan Orduen” ingurukoa. (Bunyan eta Fisher, 1934)


⁶ Mundu mailako lehen herrialdea Uruguai izan zen, 1915ean. (Agencia Uruguay de Noticias, 2015)

⁷ *Hours of Work (Industry) Convention*, 1919

bitartekoak lortzerik ez duenez beharrezkoa du bere lan egiteko gaitasuna edo lan indarra saltzea, honen truke beharrezko bizi baliabideak lortzeko beharrezkoa duen soldata lortzeko.

Lanegunaren determinazioa beraz, guztiz lotuta dago soldatarekin, hau da, lanaren prezioarengatik.⁸ 1. Irudian agertzen den bezala, lanorduak errenta per capitaren alderantzizko proportzioan hazten dira.⁹ Honen arabera, langilea denbora gehiagoz edo gutxiagoz lan egitera ikusten du behartuta bere burua. Prezio honek gora egitean langileen lan orduak murrizteko joera dute eta lehen hau murriztean lan orduak handitzeko. Izan ere, soldatek gora egitearekin bat langileek kontsumo maila handiago bat eskuratzen dutenez lan gutxiago egitea aukeratzeko posizioan daude. Aldiz, soldatek behera egitean, lan ordu gehiago egiteko joera ematen da kontsumo gaitasuna mantentzeko.

1. Irudia. Lan Astea eta errenten arteko erlazioa.



Iturria: Lee, McCann eta Messenger (2019, 33. or)

Soldata, irudiz, *lanaren* prezio bezala agertzen da, hau da lan kantitate batengatik ordaintzen den diru kantitatea. Soldata *lanaren* balioaren irudikapena litzateke, honen diru-adierazpena. Ekonomia politiko klasikoaren aburuz *lanaren prezio naturala* litzateke balio hau. Bestetik, eskola ekonomiko honen arabera betiere, lan merkatuaren prezioa legoke, eskaintza eta eskariaren oszilazioen eraginez, prezio naturaletik gainetik edo azpitik mugituko litzatekena.

Ekonomia politikoaren kritikak ordea azalpen honetan berezko kontraesanak topatu zituen. Izan ere, merkantzien balioaren magnitudea berak daukan *lan* magnitudearengatik neurtzen bada, definizioak arazoak sortzen ditu lan egunaren balioa ulertzeko orduan.

“Baina zein da merkantzia baten balioa? Honen ekoizpenean gastatutako lan sozialaren forma objektiboa. Eta nola neurtzen dugu bere balioaren magnitudea? Daukan lan

⁸ “De esto se sigue, como ley general, la siguiente: *si la cantidad del trabajo diario, semanal, etc., está dada, el jornal o el salario semanal dependerá del precio del trabajo*, que a su vez varía con el valor de la fuerza de trabajo o las desviaciones de su precio respecto a su valor. Si, en cambio, está *dado el precio del trabajo, el jornal o el salario semanal dependerá de la cantidad del trabajo diario o semanal.*” (Marx, 1984, 662-662. or)

⁹ Lee, McCann eta Messenger (2019, 32. or)

magnitudearengatik. Nola determinatuko litzateke, beraz, 12 orduko lanaldia baten balioa? 12 ordutako lanaldi batek daukan 12 orduko lanarengatik, tautologia hutsal bat besterik ez dena.”¹⁰

Zentzu honetan, ez litzateke zuzena izango langileak bere *lana* saltzen duela esatea, bere *lan indarra* baizik.¹¹ Merkatuan kapitalistak ez du langilearen *lana* erosten, baizik eta *langilea bera*. Funtsezko kontua dau hau, izan ere, kapitalaren funtzionamenduaren oinarrian kokatzen da. Lehia kapitalistaren eraginez gainbalioa ez baita orekako merkatuetan merkantzien truketik ateratzen.

Ekonomia politiko klasikoak gainbalioaren sorrera trukean sortzen zela emantzat jo zuen. Hau da, itxuran gertatzen den bezala merkantzia bat ekoiztean, berau ekoizteko beharrezkoak diren merkantziak merke erosi eta garesti saltzearen prozesutik. Bestela esanda, merkantzia bere balioa baino garestiago saltzea bere balioa baino merkeago erositako lehengaiekin ekoiziz.

Hala ere, merkatu kapitalistan ematen den lehia dela eta, orekan dauden merkatuetako joerak merkantziak bere balioarengatik saltzera darama. Demagun azkoin ekoizle batentzat 1000 azkoin ekoizteko kostuak 1€koa direla.¹² 1000 azkoin ekoiztean lan indarrak gehitzen dien balioa 0,3€koa izanik, altzairuaren kostua 0,3€, makineria desgasteagatik 0,4€ amortizatzen dela eta merkantzia hauek bere balioarengatik saltzen direla emantzat joz.

Azkoin ekoizleak 1000 azkoin horiek merkatuan saltzerakoan beste azkoin ekoizleekin lehiatu beharko luke. Adibidez, 1,1€ko prezioan saldu nahiko balitu, merkatuko gainontzeko ekoizleek prezio hori baino apur bat merkeago saltzeko joera lukete (1,09€tara adibidez) gure ekoizlea merkatutik kanporatzeko. Ekoizleak merkatuaren kuota bat lortzeko beste ekoizleen prezioa edo txikiagoan saldu beharko luke merkatuan parte hartzeko, demagun 1,08€tara. Prozesu hau errepikatu egingo litzateke 1€ko preziora iritsi arte. Joera, beraz, 1000 azkoin horiek bere balioarengatik saltzekoa litzateke, hau da, 1€era.

Ekoizleak 1000 azkoin egiteko altzairua 0,3€tan ordez 0,2€tan erostea lortuko balu egia da 0,1€ko etekin gehigarria lortuko lukeela, baina etekin gehigarri hau altzairu saltzailearen bizkar lortuko luke, hau da, era honetan ezingo litzateke azaldu ekoizpen totalaren handipena. Izan ere, azkoin ekoizlearen 0,1€ko etekin hori altzairu ekoizlearen 0,1€ko galera litzateke eta merkatuaren ikuspegitik ez legoke aberastasun aldaketarik.

Beraz, merke erosi eta garesti saltzearen teoria honek ez luke azalduko gainbalioaren sarrera eta aipatutako azken adibideko egoera emanda ere ez luke ekoizpenaren handipena azalduko. Merkantziak orekako egoeran bere balioagatik saltzen direnez, gainbalioaren jatorria azaltzeko ezin da analisisa elkartrukearen esferara mugatu.¹³

Trukearen prozesua D_1-M-D_2 izanda, non D_1 hasierako dirua den, M diru horrek ordezkatzen duen balioarengatik trukaturako merkantzia eta D_2 merkantzia hori saltzeagatik lortutako diru baliokidea, agerikoa den bezala, prozesu honek ez luke berez zentzu gehiegirik, dirua elkartrukean arriskatzea berriz ere diru kantitate berdina lortzeko. Baina formula honen eraldaketatik dator kapitalaren formula, $D-M-D'$. Non D hasierako dirua litzateke, M , diru horrek

¹⁰ Marx (1984, 651. or)

¹¹ “Por fuerza de trabajo o capacidad de trabajo entendemos el conjunto de las facultades físicas y mentales que existen en la corporeidad, en la personalidad viva de un ser humano y que él pone en movimiento cuando produce valores de uso de cualquier índole.” (Marx, 1984, 203. or)

¹² Sinplifikatzeko, kostua soldata, altzairua eta makineriaren amortizazioarengatik soilik osatuta dagoela joko dugu.

¹³ Marx (1984, 201-202. or)

ordezkutzen duen balioarengatik trukaturako merkantzia eta, D' , merkantzia horrengatik lortutako diru kantitatea, zeina hasierako D baino handiagoa litzateke.¹⁴ Kapitala beraz, *autobalorizatzen den balioa*¹⁵ litzateke eta gainbaliorik gabe truke prozesuak ez luke zentzurik eta ez legoke ekoizpen kapitalistarik.

Gainbalioa eta ekonomiaren handipena azaltzeko ekoizpenaren esferara joatea dagokigu. Baina, nola sortu daiteke gainbalioa ekoizpenean merkantziak bere balioarengatik saldu eta erosten badira? Honen erantzunerako kontsumitzen den bitartean balioaren iturri den merkantzia batean legoke, lan indarra hain zuzen. Horrengatik, ekoizpen kapitalistaren funtsezko oinarri bat merkatuan lan indarra egotea da.

2.2. Lan indarra merkantzia bezala

Lan indarra, ekoizpenerako aldagai funtsezkoa izanik eta gizartea sortu zen puntu beretik lana ezinbesteko prozesua izan dela argia den arren egun lan indarrak hartzen duen erabilera mota ez da betidanik existitu. Mende luzeetan zehar *lan indarra ez da merkantzia bezala existitu*. Izan ere, gizakiak bere bizi baliabideak eskuratzeko bere lan indar propio osoa erabili beharko balu, lan indarraren salerosketa zentzugabea litzateke merkantzien trukearen ikuspegitik. Gizaki batek beste baten lan indarra erosi eta ekoizpen baliabideak eskainiko balio eta azken honen ekoizpen gaitasuna bere bizi baliabideak ekoizteko besterik ez balu sortuko, lan indarraren erosleak ez luke ezer lortuko, eta beraz lan indarra merkantzia bezala ez luke inongo *erabilera baliorik*.

Beraz *lan indarra* merkantzia bezala agertu ahal izateko ez da nahikoa gizakia lan egiteko gaitasuna izatearekin. Beharrezkoa da gizakiak bere biziraupena bermatzeko beharrezkoa duena baino gehiago ekoizteko gaitasuna izatea. Hau da, produktibitate jakin bat aurreuposatzen du, langilearen bizi bermatzeko egiten duen *beharrezko lanaz* gain, ekoizpen-bideen jabearentzako *gainlan* bat bermatzeko produktibitate nahikoa, alegia.

Hala ere, gainlana bermatzen duen produktibitateak ez du lan indarra merkantzia bezala agertzea ziurtatzen. Aurrerago ikusiko dugunez, iada komunitate primitiboetan produktibitate nahikoa zegoen (eta dago) gainlana egin ahal izateko, baina gainlana esplotatu beharrean, beharrezko lana egitean bukatutzat ematen zuten jarduera produktiboa. Komunitate hauetan, beraz, ekoizpenaren helburua ez zen aberastasuna metatzea, gizakien behar naturalak asetzea baizik.

Antzinaro eta Erdi Aroan gainlanaren esplotazioa existitu zen esklabu-jabe eta jopu-jauntxoaren arteko harremanaren bitartez. Biak produktibitate jakin batean zeuden oinarrituta, hau da, giza lanak pertsona bat baino gehiago mantentzeko zuen gaitasunean. Bietan klase batek (Jabeak esklabismoan eta jauntxoak feudalismoan) gaitasun horren bizkar bizi zen. Baina ez gizarte batean ez bestean ez zen lan indarra merkantzia bezala saldu. Izan ere merkantzia bezala saldu ahal izateko beharrezkoa da lan indarra norberaren jabetza izatea, hau da, langilea *libre* izatea bere lan indarra saltzeko.

“[...] *librea* bi zentzutan, batetik, gizaki libre bezala, bere lan indarra duelako eta honen jabe delako bere merkantzia *propio* bezala, eta bestetik, saltzeko beste merkantziak ez dituelako,

¹⁴ Hau da, $D'=D+\Delta D$

¹⁵ Marx (1984, 184-188. or)

bere lan indarra aktibitatean jartzeko beharrezkoak diren *gauzetaz* salbuetsita, desjabetuta eta libre dagoelako.”¹⁶

Baldintza hau ez zen orohar Antzinaroan edo Erdi Aroan ematen. Esklabismoan, lan indarra ez zen gainontzeko ekoizpen-bideetatik bereizten, beste ekoizpen bide bat zen. Esklabua jabearen beste jabetza bat besterik ez zen. Feudalismoan, halaber, lan indarra zuzenki zegoen lotuta ekoizpen bideetara. Lurra, adibidez, langile batetik bestera pasatzen zen kasuetan lurrarekin batera pasatzen ziren hauen tributuak. Soilik lan indarra eta ekoizpen bideak merkatuan banatutak aurkitzean ematen da lan indarra merkantzia bezala agertzea.

Baina, adibidez, baldintza hauek eman izan dira soldatapeko lana agertzen ez zen garai batzuetan. Antzinako erroman adibidez, lur jabetza esklabista handiak sortzeko, milaka nekazari txikik haien lurrak galdu zituzten. Hauek ere pertsona libreak ziren eta ez zeukaten bizi baliabideak bere kabuz lortzeko baliabiderik. Egungo langileek bezala, zeukaten bakarra haien lan indarra zen. Ezberdintasuna lan indar horrek eroslerik ez zuela zen, esklabuen lana nahikoa zen lurjabeen bizi baldintzak asetzeko. Esklabuek ekoizten zituzten haien janak, eraikinak, jantziak... Beraz, lan indarrak ez zuen merkantzia bat bilakatzeko beharrezkoa den erabilera baliorik. Izan ere jabeentzako ekoiztearen zentzua haien beharrak zuzenki asetzean zegoen, ez besterentzeko bideratutak zeuden produktuak ekoiztean. Garaiko nekazari txiki desjabetu horiek, hirietara jo zuten proletario libre bezala. Egungo eta orduko proletarioen arteko ezberdintasuna ondo irudikatu zuen Jean-Charles Sismondi ekonomialariak:

“[...] erromatar proletarioak ez zuen lanik egiten; izan ere, esklabutza onartzen duen gizarte batean, lana desohorea da gizon libreentzat; errepublikak ematen zituen elikagai laguntzen banaketei esker bizi zen, gizartearen kontura. Ia esan dezakegu gizarte modernoan proletarioen bizkar bizi dela, bere lanaren ordainsaria murrizten baitu.”¹⁷

Egun lan indarra merkantzia bezala saltzearen beste arrazoi bat da egun ekoizpena ez dagoela bideratuta beharrak kontsumo zuzenaren bidez asetzera baizik eta salmentarako produktuak ekoiztera. Esklabuen jabeak eta jauntxoak lan indarra haien behar pertsonalak zuzenki asetzeko erabiltzen bazituen ere, kapitalismoan, ekoizpen bitartekoen jabeak lan indarra salmentarako merkantziak ekoizteko erabiltzen dituzte.¹⁸ Beraz, lan indarraren salerosketa egun nahiko arrunta dirudien arren prozesu historikoaren bidez aipatutako baldintza hauek eman arte ez zen modu orokortu batean eman. Eta, aipatu bezala, merkantzia honetan dago gainbalioaren iturria.

2.3. Lan indarraren balioa

Merkatuan *libreki* aurkitzen den lan indar hau, beste edozein merkantzia bezala, bere balioarengatik saltzen da. Baina aurretik aipatu bezala, hau, bere erabileran balio gehiago sortzeko gai da. Izan ere, lan indarraren balioa, beste edozein merkantziaren balioa bezala, berau ekoizteko sozialki beharrezkoa den lan denboragatik determinatzen da. Lan indarra ezinbestean langilearen bizitzari dago loturik eta honen bizitza bermatzeko biziraupenerako bitartekoak dira beharrezkoak. Lan indarraren balioa beraz honen jabe den langilearen bizitza mantentzeko biziraupen bitartekoen balioa da. Langilea hurrengo egunean baldintza *normaletan* lanera joateko haina eta, halaber, lan indarraren jabearen bizitza finitua izanik, lan

¹⁶ Marx (1984, 205. or)

¹⁷ Sismondi (1837, 34-35. or)

¹⁸ Luxemburg (1974, 183-216. or)

indarraren erreproduzioa bermatu beharko dute biziraupen bitarteko hauek. Hau da, langileek ondorengoak izan eta bizi baldintzak mantentzeko bitartekoak. Honek ez du esan nahi bakarrik jan eta lo egiteko minimoekin hau ematen denik, baliabideen kantitate hau sozialki determinatuta dago.

“Elikadura, arropa, berotzea, etxebizitza... bezalako behar naturalak aldakorrek dira herrialde bateko berezitasun klimatiko eta gainontzeko baldintza naturalen eraginez. Gainerakoan, *nahitaezko beharrak deiturikoen bolumena*, bere asetzearen nolakotasuna bezala, *produktu historiko* bat da, eta horrenbestez, herrialde bateko maila kulturalaren, eta, beste gauzen artean ere langile libreen klasea sortu den inguruaren menpe dago, eta beraz hauen ohitura eta bizi aspirazioen menpe.”¹⁹

Lan indarraren balioa beraz *beharrezko* bizi baliabideengatik dago determinatuta. Baina herrialde batetik bestera langileen bizi baldintzak asko aldatzen direla dakigunez ikusten dugu kontzeptu hau nahiko malgua dela. Balio honen determinazio malgua dela eta kapitalista eta langilearen arteko borrokan zehazten da. Zeintzuk dira beraz kapitalistaren posiziotik *beharrezko* bizi baliabideak? Honen ikuspuntutik, zeinak edozein erosle bezala erositako merkantziengatik ahalik eta gutxien ordaindu nahi duen, langilearen *beharrezko* bizi baliabideak azken hau bizirik mantentzeko minimo fisiologikoak bermatzeko baliabideak besterik ez dira. Gehiago ordainduko balu, ikuspegi honetatik betiere, lan indarraren balioaren gainetik erosten ariko litzateke merkantzia berezi hau.

Langileak aldiz, lan indarraren balioa beste modu batean definituko du. Zeintzuk dira beharrezko diren bizi baliabideak? Lan indarraren eroslearen minimo fisiologikoaren aurrean, merkantzien balioa *sozialki* beharrezko lan denboragatik definituko du lan indarraren balioa. Eta beraz, bizitzeko *sozialki* beharrezkoak diren kostuak bermatu beharko ditu, hau da gizarte batean bizi baldintza ohikoak eskuratzeko haina baliabide.

Ikusten denez lan indarraren erosle eta saltzailearen partetik ikuspuntu ezberdinetatik definitzen dute lan indarraren balioa. Ikuspuntuaren arabera definizio ezberdinak dauden arren, kapitalista da soldata horiek ordaintzeko dirua duena, eta beraz, langilea norbanako bezala ezin ditu bere baldintzak gailendu. Soilik klase bezala antolatuta lortzen ditu, kolektiboki.

Hala erakusten du kapitalismoaren garapeneko lehen hasieran, langile klasearen erakunde politiko eta sindikatuak garatu gabe zeudenean, langileen soldatak biziraupen mailan inguruan mugitu izana. Langile klasearen mugimendu politiko eta ekonomikoak garatzearekin bat lortu zen soldatak behar sozial eta kulturalak kontuan hartzen zituen mailara igotzen joatea.

Era berean, beste edozein merkantziarekin bezala, bere ekoizpen kostuak handitzearekin bere balioa handituko denez, beharrezko bizi baliabideen ekoizpenaren kostua handitu edo txikitzen bada lan indarraren balioa ere handitu edo txikituko da.

Lan indarraren balioa bere prezioan finkatzen da, bere soldatan, eta edozein merkantziarekin bezala prezio hauek eskaintza eskariarengatik oszilatzen egiten dira. Hala, langileen eskaintza handitzean soldatek jaisteko joera dute, eta, langileen eskaria handitzean soldatak handiarazteko.

¹⁹ Marx (1984, 208. or)

2.4. Lanegunaren hazkundera gainbalioaren ustiaketarako

Aipatu bezala, lan indarraren erabilera balioa da orekako ekoizpen prozesu batean mozkinaren jatorria. Izan ere, merkantziak bere balioan saltzen diren egoeran, lan indarrak gaitasuna du bere erreproduzio kostuak baino balio gehiago sortzeko.

Langileak lan indarra denbora epe batez merkaturatzean bere balioarengatik egiten du saldu, bizi baliabideen balioarengatik. Demagun mahaiak egiten dituen zurgin batek merkaturatzen 300€tan saltzen diren 10 mahai egiten dituela 10 orduz lan egiten hilabete batean, emantzat emanaz bere balioarengatik saltzen direla merkantzia hauek merkaturatzen. Hauetatik 40€ egur, iltze eta gainontzeko materialetan eta zerra, bihurkin eta gainontzeko makineriaren amortizazioa 10€koa izanik mahai bakoitzeko. Hala balitz, mahaiak bere balorean saltzeko, hau da, ekoizteko sozialki beharrezkoa den lan denborarengatik saltzeko, gainontzeko balorea langileak erantsitako sozialki beharrezko lanarengatik azalduko litzateke. Beraz, mahai bakoitzeko 250€tan espresatutako balorea erantsiko litzeki zurginaren lan prozesuak, 2.500€ 10 mahaiengatik. Baina langilearen bizi baliabideak lortzeko beharrezkoa 1.250€tako soldata batekin bermatuko litzateke. Adibide honi jarraiki, langileak bere soldata erreproduzitzeko hilabetean 5 orduko lanaldia beharko luke. Gainontzeko 5 orduak gainlanaren esplotazioa izanik, denbora tarte horretan sortutako balio gehigarria edo gainbalioa ekoizpen bideen jabeak eskuratuz. Beraz, laneguna bi osagai hauengatik legoke zehaztuta. Alde batetik, langilearen bizi baliabideak eskuratzeko *beharrezko lanarengatik* eta bestetik, gainbalioa sortzeko beharrezkoa den *gainlana*.

Hasieran aipatu bezala, gainbaliorik gabe ekoizpen modu kapitalistak ez luke zentzurik eta hau gainlanarekin ekoizten den gainproduktuari esker sortzen da. Beraz, 5 orduko laneguna nahikoa izan arren langilearen bizi baldintzak bermatzeko honekin ez genuke jakingo zein den laneguna bere osotasunean.

“Jo dezagun a _____ b marra *beharrezko* lanorduen luzapena irudikatzen duela, demagun, 6 ordu. Lana a b tartetik 1, 3 edo 6 orduz gehiago zabaltzen bada, hurrengoko hiru marrik lortuko genituzke,

I. Lanaldia

$$a \text{ _____ } b \text{ } c$$

II. Lanaldia

$$a \text{ _____ } b \text{ } c$$

III. Lanaldia

$$a \text{ _____ } b \text{ _____ } c,$$

3 lanaldi ezberdin irudikatzen dutenak, 7, 9 eta 12 ordukoak. b c marra gehigarria gainlanaren hedadura irudikatzen du. Lanaldia = a b + b c , hau da, a c , denez, b c aldagai aldakorrarekin aldatzen da. a b emana dagoenez, posible da b c eta a b arteko proportzioa neurtzea. I. Lanaldian 1/6ko proportzioa litzateke, II. Lanaldian 3/6koa eta III. Lanaldian 6/6koa. Gainera

$$\frac{\text{Gainlan denbora}}{\text{Beharrezko lan denbora}}$$

proportzioak gainbalio tasa determinatzen duenez, tasa hau harreman horren bidez emana dago.”²⁰

Hau kontuan izanda lanegun minimoa ekoizpen modu kapitalistan a -tik b -ra doan tartea litzateke, hau da gainlana 0 litzatekeen puntua, zeinetan ekoizpen modu kapitalistak zentzurik ez lukeen izango. Lanegun maximoa bi modutan dago determinaturik. Batetik, muga *fisikoa* genuke, egun batean langile batek indar maximo bat gastatu baitezake, egunaren zati batean lo, garbitu, elikatu... behar baitu. Bestetik muga *sozialak* leudeke, izan ere gizakiok gure behar sozialak asetzeko denbora tarte bat beharrezkoa dugu. Muga sozial hauek gizartearen garapenari daude zuzenki lotutak.

Lehia kapitalistaren ondorioz geroz eta gainbalio gehiago kapital bihurtu behar duenez,²¹ gainlan honen ekarpen erlatibo edo absolutua handiagotzea joera bat da ekoizpen modu kapitalistan. Gainbalioa bi modutan handitu daiteke lanaldiarekiko, lanaldia bere horretan handituz edota lanaldia mantenduz beharrezko edo ordaindutako lanegunaren murrizketarekin.

Batetik, absolutuki, hau da, aurreko adibideko egoeran, a b tartea mantenduz b -tik c -ra doan tartea zabalduz, eta beraz, laneguna era agerikoan zabalduz. Eta beste aldetik, erlatiboki, hau da, hau da lanegunaren orduak mantenduz b -tik c -ra doan tartea handituz a -tik b -ra doan beharrezko lan denbora murriztuz.

Soldata, beraz, bi ikuspegi hauetatik ikusi beharko genuke, soldata absolutua eta soldata erlatiboa ezberdinduz. Soldata absolutua bi forma lituzke, nominala eta erlatiboa, hau da, diru kantitatea eta eros ahalmenaren formak. Gerta daiteke soldata nominala handitzea baino erlatiboa jaitea. Beraz soldata erlatiboa da soldatapekoen bizi baldintzak azaltzen dituen forma. Plano honetan izan dute eragina gehien bat sindikatu eta antzeko eragileek, hau da, soldata minimo fisiologikoan kokatzeko joeraren aurka soldata beharrezko *sozialetan* kokatzeko.

Beste forma, soldata erlatiboa litzateke, hau da langileen bizi baldintzak aberastasun sozialarekin alderatuz, langileen partaidetza ekoizpen sozialean.

“Pertsona eta klaseen bizi maila soilik momentuko egoera kontuan hartuz eta gizarte bateko gainontzeko estratuekin alderatuta epaitu daiteke zuzentasunez. Tribu beltz primitibo, semibasati edo barbaro bateko printzeak, Afrikan, Alemaniako batezbesteko fabrikako langile batek baino bizi maila baxuagoa du, hau da, etxebizitza xumeago bat, arropa kaskarragoak edota jaki zakarragoak. Baina printze hau, bere tribuko baliabide eta xedeekin alderatuz, “printze bat bezala” bizi da, Alemaniako fabrikako langilea, burgesia aberatsarekin eta gure garaietako beharrekin alderatuta, modu erabat txiroan bizi den bitartean.”²²

Izan ere, kapitalismoan zehar soldata errealek gora egin badute ere, soldata erlatiboek edo langilek ekoizpen sozialean duten parte hartzea beheranzko joera izan du. 2018an, adibidez, sortutako aberastasunaren %82a populazioaren %1en eskuetan pilatu zen.²³ Joera honek egungo estatistika harrigarrietara garamatza, non biztanleriaren %1ak gutxi gora behera aberastasun sozialaren erdiaren jabe da.²⁴

²⁰ Marx (1984, 277-278. or)

²¹ Marx (1984, 713-726. or)

²² Luxemburg (1974, 205-206. or)

²³ Oxfam (2018, 12. or)

²⁴ Credit Suisse (2018, 20. or)

Kapitalismoaren garaietan zehar egondako produktibitate igoerak ordurarte pentsaezina zen aberastasunaren hazkunde esponentzial bat ekarri duen arren, ikusiko dugunez, hazkunde hori ez da zuzenean aberastasunaren sortzaileen hobekuntza zuzen bezala islatu. Egondako produktibitate igoera ez da tamainako lanorduen jaitsiera batetan islatu.

3. LANEGUNAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Arestian aipatu bezala, lan orduen inguruan hitz egitean ikuspegi historiko bat edukitzearren, lanegunak ekoizpen modu ezberdinetan zehar izan duen garapena aztertzerako pasako gara. Izan ere, egungo lanorduak gutxi irudituko litzaizkioke ziurrenik XIX. mende hasierako ehun fabrikako langile bati, eta asko ordea, Antzinako Erromako hiritar bati.²⁵ Beraz kapitalismoaren legeen pean lanorduak izan duen joera aztertu baino lehen eta lan orduak ikuspegi historiko batetik erlatibizatzeke interesgarria litzateke historian zehar lan orduen inguruko analisi bat egitea, azalezkoa bada ere.

Analisia egiteko, ekoizpen modu kapitalista eta kapitalismoa garatu gabeko ekoizpen moduak banatuko ditugu, laneguna determinatzen duten legeak asko aldatzen baitira ekoizpen modu batetik bestera. Eta beraz, egungo ekoizpen moduan laneguna determinatzen duten legeak aztertu baino lehen gizarte aurrekapitalistak aztertuko ditugu hauetan ematen ziren lanegunak aztertzeke.²⁶ Hauen barruan ere banaketa ezberdinak eman dira garai historiko eta kokapen ezberdinen arabera, guztiak aztertzea aparteko lana ekarriko lukenez, azalezko analisi bat egingo dugu.

3.1. Laneguna Ekoizpen Modu Aurrekapitalistetan

Kapitalismo garatu aurretiko gizarte motak ez ziren bat eta bakarra izan. Historian zehar ekoizpen modu ezberdinak sailkatu izan dira, hauetan ematen zen ekoizpen indarren garapen eta ekoizpen erlazio ezberdinen arabera. Ekoizpen modu ezberdin hauen artean ordea badago funtsezko ezberdintasun bat komunismo primitibo bezala izendatu den ekoizpen moduaren eta gainontzeko ekoizpen modu aurrekapitalisten artean. Izan ere, lehen ekoizpen modu horretan ekoizpen bitartekoen eta, beraz, ekoizpenaren fruituaren jabetza kolektiboa izanik, gizartea ez zegoen klase sozial ezberdinetan banaturik. Honek lan egunaren finkapenean funtsezko aldaketa bat dakar. Izan ere gainontzeko ekoizpen moduetan ez bezala, komunismo primitiboan ez zen gainlanik existitzen, hau klase sozialetan banatutako gizartearen bereizgarria izanik.

3.1.1. Laneguna Komunismo Primitiboan

Gizartearen historiaren lehen ekoizpen modu bezala izendatu den garaia, ekoizpen modu hau gizartearen sorreratik, lehen estatuak sortu arteko garaian izan zuen nagusitasuna, eremu

²⁵ "Summer and winter alike, Roman workmen enjoyed freedom during the whole or the greater part of the afternoon, and very probably our forty-hour week with its different arrangement would have weighed heavily on them rather than pleased them." (Carcopino, 1941, 184.or)

²⁶ Eta diren. Izan ere momentu jakin batean ekoizpen modu bat nagusitzeak ez du esan nahi beste ekoizpen modu batzuk ere existitzen ez direnik. Egun oraindik antzina nagusi ziren ekoizpen moduetara gerturatzen diren komunitate eta gizarteak badiraute. Feudalismoaren propioak diren ekoizpen harremanak Bhutan bezalako leku batzuetan edota komunismo primitiboa Hego Amerikako zeinbait komunitatetan adibidez.

geografikoaren arabera garai historiko ezberdinetan eman zena.²⁷ Komunitatearen ekoizpen bitartekoen jabetza kolektiboan oinarritzen zen. Halako ekoizpen modua ekoizpen indarren garapen primitiboari oso lotuta egon da. Gizaki bananduaren ahultasuna eta banakoak natura kudeatu eta ekoizteko zuen ezintasunak ekoizpen bitartekoen eta ekoizitakoren jabetza kolektiboa behartzen zuen. Egoera honetan eta ekoizpen indarren garapen eskasa zegoen garaietan, gizakiaren lanak ez zuen ia soberakinik sortzen biziraupenerako produktuetaz gain eta hauen banaketa berdintasunezkoa zen.²⁸

Komunismo primitiboa ekoizpen modu nagusia zeneko garaien aztarna asko galdu direnez, ekoizpen modu honen inguruan analisiak egiteko zailtasunak daude informazio fidagarria lortzerako orduan. Horregatik baliagarriak dira egun ekoizpen harreman berdintsuetan bizi diren komunitateak aztertzea. Azpimarratzekoa da oraindik existitzen diren hartzaile-biltzaile ekonomietan ez dagoela lana eta aisialdiaren arteko ezberdintasunik. Ez zuten bata eta bestea ezberdintzeko termino linguistikorik ere ez. Beraz, ekoizpen modu honetan ezin genezake hertsiki lan egunetaz hitz egin, egunaren bilakaeran ez baita halako banaketarik ematen. Dena den, gure analisia emateko, komunitate hauek biziraupenerako behar zituzten ekoizpen denborak aztertuko ditugu. Erregimen mota honetan bizi diren komunitateak erlatiboki ugariak badira ere, gehien azertu direnen artean daude Afrikako *!Kung*.²⁹

!Kung komunitatea Kalahari basamortuaren inguruan kokatzen den komunitate ibiltaria da. Richard Lee (1981) antropologoaren esanetan, ekoizpenaren antolaketa eta banaketari erreparatuta “komunitate boskimanoa gizarte komunista bat da”.³⁰

Ekoizpenaren jabetza kolektiboa izateak ez du inondik inora esan nahi pertsonako banaketa berdina denik. Baizik eta “bakoitzak bere gaitasunen arabera, bakoitzari bere beharren arabera” aforismoa betetzen duen banaketa ematen dela. “Taldeko kiderik trebeenak, mugikortasun handiena dutenak, behar energetiko handiagoak asetzeko gaitasuna daukate espedizio luzeak eginaz *mangongo* urrak dauden basoetaraino. Agureak, behar energetiko xumeagoekin, etxean geratzen dira eta erro, erraboil eta goma jangarriez osatutako dieta eklektikoago bat biltzen dute. Komunitateak talde bezala baliabide kolektiboak banatzen ditu, adin zein sexu ezberdinetako multzo guztien behar kalorikoak asetuz horrela.”³¹

Komunitate honetan biziraupenerako behar duten ekoizpena bermatzeko denbora aldatzen doa dauden sasoiaren arabera. Sasoi euritsuan (azaroa-apirila) ur eta jaki ugari dauden garaian uharka inguruetan finkatzen dira eta ez dute distantzia askorik egin behar jakiak lortzeko. Biziraupenerako egin beharreko esfortzua minimoa den garaia da. Sasoi lehorraren lehen erdian (maiatza-uztaila), non nahiz eta jakia oraindik ugaria den ura agortzen doan, uharka nagusietan ezartzen dira eta jakiak lortzeko geroz eta erradio handiagoa egin behar dute. Azkenik, sasoi lehorraren bukaeran (abuztua-urria), ura eta jakien arteko distantzia handiagotzearekin batera, biziraupenerako esfortzua maximoa da garai honetan.

Richard Leek, gaitasun produktiboa aztertzeko Biziraupenerako Esfortzuaren Indizea (S) kalkulatu zuen aztertzeko ea zenbat ekoizleren beharra zegoen komunitate osoaren kontsumo beharrak asetzeko.

²⁷ Engels (1955, 312-316. or)

²⁸ Boríssov, Zhamin eta Makárova (2009, 164-165 or.)

²⁹ San edota boskimano bezala ere izendatuak izan direnak.

³⁰ 58 or.

³¹ Lee (1981, 58 or.)

Kontsumitzen duten pertsona guztiek egunero lan egingo balute, $S=1,00$ izango litzateke. Honen antzeko koefizientea emanik, adibidez, gizakiak ez diren primateetan (eta animalia ornodunen gehiengoetan) zeinetan animalia bakoitzak (edoskitzeak direnak izan ezik) bera jaki propioak lortzen dituen urteko egun guztietan.

Leeren aburuz $S=1,00$ hartu daiteke gizateriaren garapenaren hasierako puntu bezala. Ondoren, biziraupenerako lanaren banaketa garatuz joan zen heinean, pertsona batzuk beste batzuk baino gehiago lan egiten hasi ziren. Leek biziraupenerako lan honen banaketan, janaren partekatzea, "etxea" edo bizilekuaren kudeaketa, produktuen garraiorako elementuak, eta haur eta zahar ez produktiboen zaintzen partekatzea kokatzen zituen gutxienez. Banaketa honen bidez eman zen aukera gizabanako guztiek egunero lan egin beharrik ez izatea.

Leek lortutako datuen arabera, ekoizle bakoitzak ekoiztera bideratzen zuen lan astea 1,9 egun eta 3,2 egun artean kokatzen zen. Biziraupenerako Esfortzuaren Indizea 0,23koa izanik, hau da 23 egun ekoiztera bideratzen zituzten 100 egunez kontsumitzeko, edo bestela esanda, ekoizteko egun bakoitzean ekoizleak bere buruaz gain beste 3 pertsona bizirauteko nahikoa ekoizten zuen.

"Boskimanoen kasuan, jakiak lortzea da ekoizpen jarduera nagusia, baina gizabanakoen denboraren gehiengoa (asteen lau edo bost egun) beste helburu batzuetarako baliatzen dute, kanpamentuan deskantsatu edo beste herrixka batzuk bisitatzea bezala."³²

Osozara, astean zehar 10-15 ordu inguru egiten dute lan boskimanoek, 2 eta 3 egun astean lan eginaz. Esan bezala biziraupenerako behar den denbora nabari aldatzen da sasoiaren arabera, urtean egindako lan orduak zehazki azterturik ez dago. Baina, Leek eman zituen datuak oinarritzat hartuz, 520-780 ordu artean egiten zuten lan !Kung komunitateko kideek urtebetean.³³

Guzti hau kontuan hartuta Leek aztertutako !Kung komunitatearen ingestio kalorikoa beharrezkotasun minimoaren gainetik zegoela frogatuta. !Kung komunitatearen analisia oinarri harturik, Leek aintzinako ehiztari-biltzaile gizarteetan biziraupen oinarri zabalago bat zutela estrapolatu zuen:

"Kontuan hartuta, hartzen den ikuspuntua hartzen dela, ipar Kalahari gizakiok okupatzeko habitat marginal bat dela, litekeena da iraganeko ehiztariak oraindik eta biziraupenerako oinarri zabalagoa eduki izana. Egun, geratzen diren ehiztariak erakargarritasun gutxien duten inguruneetara mugatuak daude, baina pleistozenoko garaietan haien uzta ingurune oparagoetan egiteko aukera zuten, ehiza, jaki begetal eta ur hornitzeari dagokionean."³⁴

Aipatu bezala, ekoizpen modu honek garatuta dituen klimak eragin erabakigarria du ekoizpen prozesuan. Marvin Harris antropologoak, boskimanoen lan ordu murrizak azaltzeko ekosistema jartzen du aldagai nagusietako bat bezala:

"Ehiztari biltzaile primitiboek, gu baino gutxiago egiten dute lan, ezein sindikaturen beharrik gabe, hauen ekosistemak ezin dutelako jasan aste eta hilabeteetako lan gehigarri intentsibo baten esfortzua. [...] ehiza guztia sarraskitu edo miliak aldenduko luke, haien herria gosez hiltzera kondentatuz urtea bukatu baino lehen."³⁵

³² Lee (1981, 59 or.)

³³ Harris (1974, 90 or.)

³⁴ Lee (1981, 59 or.)

³⁵ Harris (1974, 90 or.)

Klimak hainbesteko eragina izanik, interesgarria litzateke beste eremu batzuetako komunitate primitiboek erreparatzea. Beste kontinente batzuetan kokatzen diren beste komunitate ehiztari biltzaile batzuk aztertzerakoan, egungo gizartearen gehiengoak baino lan gutxiago egiten dutela ikusten da.

Alexander von Humboldt esploratzaile prusiarraren arabera, Mexiko hegoekialdeko zonalde tropikaletan bananen produkzioa eskaintzen zuen errendimenduari esker hektarea bakar batean 50 gizabanako mantentzeko haina zen. Halako baldintzetan, astean bi eguneko lanarekin familia oso baten biziraupenerako bizi baliabideak berma zituzten gizabanako batek.³⁶

Brasil eta Venezuela artean kokatzen diren Yanomaniaren kasuan, jarduera guztiak kontuan hartuz, egunean batezbestez lanean ematen zuten ordu kopurua 3 ordu inguruko zela erakutsi zuen Lizot antropologoak.³⁷ Era berean, Jon Altmanek Australiako komunitate aborigen bat aztertzean ondorio antzekoetara iritsi zen. “[...] gizonek 3,8 ordu egiten zuten lan batzuek, emakumeek 3,4 ordu, 3,6 ordu batezbestekoz osotara.”³⁸

Gizarte hauek ezaugarritzen dituen ekoizpen bitartekoen garapen eskasa izanik, hauek garatzen joan ziren heinean, biziraupenerako beharrezkoak gain sortzen zen soberakinaren banaketa formak aldatuz joan ziren, klase sozial ezberdinak sortuz eta honekin batera gizarte sektore batzuk beste sektore batzuentzako lan egitea. Prozesu honen bidez eman zen gainlanaren sorrera.

Richard Leek !Kung komunitatearen inguruko analisia egin zuenean, soberakinaren atxikipen bat egoteak izango litzukeen ondorioen inguruan honako analisia egin zuen.

“Halako sistema ekonomiko batean, kideen espektatiben aurka, gizabanako batek bere baliabideak aurrezteari ekingo balio eta bere ekoizpena elkarbanatu ordez aurreztera bideratuko balu, zer gertatuko litzateke? Ziurrenik, epe motzeko emaitza gizabanakoa ostrazismora zigortua izatea litzatekela. Baina bere eredu jarraituko luketen kide nahikoa egongo balira eta egingo baluke, orduan ehun soziala matenduko litzateke eta metaketa maila goren batean oreka ekonomiko berri bat sortuko litzateke. Aberastasun mailan ezberdintasunak posibleak bilakatuko lirateke, eta biziraupen ondasunak prestigio ondasun bilakatzeko bidea irekiko litzateke. Halako gizarte bat “garapen ekonomikoaren” bidea hasiko luke.”³⁹

Garapen ekonomiko horren bidea, ekoizpenaren jabetza kolektiboa desagitzen joan zen heinean, klase sozialetan banatutako lehen gizarteak eratzera eraman zuen. Hauetan, lehen aldiz ematen da gizartearen sektore batek bere biziraupenaz gain, beste sektore batentzat lan egin behar izatea. Lanaren banaketa berri honetatik eratorritako gizartea izan zen esklabismoa. Bere garapen nabariena Aintzinako Grezian eta, batez ere, Aintzinako Erroman izan zuen, K.a. XIII. mende ingurutik III. mende inguru artean nagusituz.

3.1.2. Laneguna Esklabismoan

Ekoizpen esklabistaren bereizgarria gizartearen zati ziren esklabuak beste ekoizpen bitarteko bat bezala hartzea da. Argigarria da garai haietan esklabua animalia zein lanabes “hiletatik” ezberdintzeko esleitzen zitzaizela izena, lehenengoak *instrumentum vocale* (lanabes hizlaria) bezala sailkatzen ziren, bigarrenak *instrumentum semi-vocale* eta hirugarrenak *instrumentum*

³⁶ Humboldt (1972, 378-381 or.)

³⁷ Clastres (1989, 194-195 or.)

³⁸ Altman (2011, 124-125 or.)

³⁹ Lee (1981, 60 or.)

mutum bezala sailkatzen ziren bitartean.⁴⁰ Erregimen esklabistan, esklaboen jabeak edo esklabistak ziren ekoizpen bitartekoen jabetza zutenak, esklabuak barne. Esklaboen lana izaera hertsatzaile zuzeneko zen, gainlana beraz, modu extraekonomikoan eskuratzen zuen esklabistak. Esklabistak ez ziren esklabuaren lanaren jabeak soilik, esklabuaren bizitzaren jabe zuzenak ziren. Bi klase sozial hauek izanik ere funtsezkoak gizarte mota honetan, baina hauetaz gain nekazari libre, artisau eta merkatariak ere existitzen ziren.⁴¹

Aintzinako Erroman, esklabismoaren gizarte eredu ezagunenetariko eta gehien aztertuenetarikoan, esklabu masak sortzen zuen gainlanari esker, esklabisten goi kapa ekoizpen materialerako lan fisikoa egitea saihesten zuen,⁴² politika, gobernu, arte edota zientzietara eskainiz heien denbora.⁴³

Nahiz eta klase sozialen banaketa aldatuz joan zen erromatar zibilizazioaren forma politikoa aldatu ahala, garai hartako gizarte bi multzo politiko handitan zeuden sailkatuak, herritar askeak eta herritar ez askeak.⁴⁴ Herritar ez askeak esklaboak ziren eta esan bezala hauek jabeen jabetza besterik ez ziren. Herritar askeen artean bi estratu sozial ezberdinetan zeuden sailkatutak, pribilegiadunak (Patrizioak) eta ez pribilegiadunak eta azken hauen barruan bi azpimultzo, independenteak (Plebeioak) eta dependenteak (Libertoak eta Klienteak).

Patrizioak, gizartearen %5 inguru osatzen zuten.⁴⁵ Hauek, gizarte piramidearen goikaldean kokatzen zirenak, erromako bizitza zuzentzeko kargu politikoak zituzten, eta orohar, bizirauteko beharrezko lana esklaboengain jarrita beste zereginetan pasatzen zuten haien denbora.

Esklaboak, halaber, gizartearen %20-33 inguru osatzen zutenak,⁴⁶ garaietako 2000 sesterzio (egungo 3.000€ inguru)⁴⁷ inguru balio zituen. Jabeak nahi zituen laboreak egiten zituzten eta egokitzen zitzaie lanen arabera asko aldatzen ziren haien bizi baldintzak. Esklabuen gehiengo nekazaritzan eta abeltzaintzan lan egiten zutenak ziren arren, etxeko esklabuak zeuden ere. Hauek guztiak eguzkia atera aurretik esnatu eta gaua jarri arte jabeak zerbait eskatzen zuen uneoro egiten zuten lan, etxeko lan ezberdinak egiten (Sukaldata, etxea, arropa edota lorategiak garbitu...)⁴⁸ Minetan lan egiten zutenak ziren baldintza okerrenak zituztenak. Esklabu hauek gau eta egun egiten zuten lan eta zituzten baldintzak zirela eta, esklabu mota hauek ez zuten 2 urte baino gehiagoko bizi itxaropenik.⁴⁹ Esklabuek ez zuten apenas deskantsatzeko unerik, salbuespen bezala ziren *Satrunalia* bezala ezagunak ziren jaiak, zeinetan esklabu eta jabeak rolak aldatzen zituzten.⁵⁰

⁴⁰ Blackburn (2003, 267 or.)

⁴¹ Boríssov, Zhamin eta Makárova (2009, 165 or.)

⁴² Pertsona libre batentzat halako lanak egitea zerbait mespretxagarritzat zeukan orduko kulturak.

⁴³ Boríssov, Zhamin eta Makárova (2009, 165 or.)

⁴⁴ Erromatar Inperioan, hiritarren eta ez hiritarren artekoa zen zatiketa nagusia. Hiritarren barruan kokatzen ziren Patrizioak eta Plebeioak, eta Liberto eta Esklaboak ez-hiritarren artean.

⁴⁵ GPIHG (2010)

⁴⁶ "As many as 1 in 3 of the population in Italy or 1 in 5 across the empire were slaves and upon this foundation of forced labour was built the entire edifice of the Roman state and society." (Cartwright, 2013).

⁴⁷ Adam Smithek, Nazioen Aberastasuna liburuan (2007, 174 or.) idatzi zuen garaian (1776) esandakoaren arabera "[...] sei mila sesterzioko preziora, gure egungo diruaren berrogeita hamar libreraren baliokidea" zen. Ingalaterrako Bankuaren inflazio kalkulatzailerak (2019a) erabiliz badakigu $50\text{£}_{1776}=8.049,28\text{£}_{2018}\approx 9.200\text{€}$ dela eta beraz sesterzio 1=1,5€ inguru direla.

⁴⁸ Carpenter (2014)

⁴⁹ Hodges (2016, 20. or)

⁵⁰ Macrobio (2010, 9-10 or.)

Gainontzeko herritar aske ez pribilegiadunak, Plebeio, Liberto eta Klienteak, gizartearen gehiengoa osatzen zuten %60-75 inguru, garai eta lurraldearen arabera aldatzen zen arren. Hauen gehiengoak 7 ordu inguru egiten zuten lan udako egunetan eta 6 ordu neguan. Jérôme Carcopino historialariaren arabera “[...] langile erromatarrak askeak ziren arratsalde osoan zehar edo arratsaldeko zatirik handiengan, eta ziurrenik gure berrogei orduko astea, bere aldaera ezberdinekin, asebate baino, oso astuna irudituko litzaieke.”⁵¹ Urtean 180 egun inguru ziren jainko edo erlijoari eskainitzako egunak, nahiz eta guztietan lan egiteari uztea beharrezkoa ez zen, aukera zegoen jai egunak alde batetik edo bestetik hartzeko.⁵²⁵³

Komunitate primitiboarekin alderatuta ekoizpen modu esklabista progresiboa zen, esklabismoak ekoizpenaren garapen handiago bat posible egiten zuelako. Ala ere, denborarekin eta ekoizpen indarrak garatu ahala, erregimen esklabista gizartearen garapenaren balazta bat bilakatu zen. De Ste. Croix (1988) historialariari jarraituz, “Behe Erromatar Inperioan ekoizle libre txikien esplotazioaren garrantziaren ageriko hazkunde bat eman zenean, esklaboen lanaren erabilera, zentzu hertsian, beharrezkotasuna galdu zuen; [...] lan ez librea esplotazioaren iturri nagusi izaten jarraitu zuen, eta nekazariari gerrikoa estutu behar izan zitzaizkion, haietako zati handi bat mirabetza formaren batera murriztua izan ziren.”⁵⁴ “[...] III. mendea bukatu baino pixka bat lehenago, nekazari langileen gehiengoa [...] mirabetza edo sasimirabetza forma ezberdinetara jazarriak ikusi zuten haien burua.”⁵⁵

Eztabaidak badaude ere ekoizpen modu esklabista zehazki noiz bukatu zen esaterako orduan, ekoizpen indarren garapenarekin batera ekoizpen harremanak aldatzearekin, ekoizpen modu feudal bezala ezaguna dena garatuz joan zen.

3.1.3. Laneguna Ekoizpen Modu Feudalean

Feudalismoaren garaian, K.o. lehen mendeetan zabaldu zena, ekonomia naturalaren nagusitasuna izanda gizarte eraketa oso lotuta zegoen luraren jabetzari. Nahiz eta politikoki klase ezberdinak egon, feudalismoaren gizarte antolaketan funtsezko bi klase zeuden luraren jabetzari dagokionean, lurren jaun feudala eta hauendako lan egiten zuten nekazarien klasea. Lurren jabetza forma ezberdinetan ematen zen bezala,⁵⁶ nekazariak gainlana forma ezberdinetan egiten zuten. Hierarkiaren azkeneko mailan zeuden jopuak lurrari legalki loturik zeuden eta haien biziraupenerako ekoizpenaz gain jaunentzako lan egitera behartuak zeuden. Hala izanda, jaun feudalen aberastasuna zuzenean zegoen determinatuta nekazariak egiten zuten gainlanarengatik.

Gizarte feudalen klaserik zabalena nekazariak osatzen zuten, %85 inguru Alixe Bovey erdi aroan espezializatuta dagoen historialariaren arabera.⁵⁷ Garaietan zehar, nekazari hauen lan orduak aldatuz joan ziren eta estimazio ezberdinak daude hauen inguruan. Thorold Rogers ekonomialari ingelesaren arabera, orduko lanegunak ez ziren 8 ordu baino luzeagoak.⁵⁸ Laneguna, historian zehar nagusi izan den bezala, egunsentitik ilunabarrerako tartean ematen zen, eta beraz laneguna aldakorra zen garaiaren arabera, luzeagoa udan eta laburragoa neguan.

⁵¹ Carcopino (1941, 184 or.)

⁵² Scullard (1981, 57-267 or.)

⁵³ Dumézil (1980, 214-220 or.)

⁵⁴ Ste. Croix (1988, 139 or.)

⁵⁵ 308 or.

⁵⁶ Lurren jaunak, errege, noble edota instituzioak izan zitezkeen (Monasterioak kasu) zeintzuek nekazarien lanen, hauen jabetzak ziren lurak lantzeagatik, zati bat jasotzen zuten izan espezietan edo izan errentan.

⁵⁷ Bovey (2015)

⁵⁸ Rogers (2001, 542 or.)

Orohar, ez zen ohikoa jopuek egun osoa jaunarentzako lan egitea. Bennet historialariari jarraiki, lan egun ohikoa goizetik bazkalordura ematen zen, egun osoan zehar lan egitekotan bi lanegun arunt bezala hartzen zelarik.⁵⁹ Beste langile mota batzuei erreparatuz, XIV. mendeko artisauek urtean zehar 9 orduko batezbesteko lan eguna zuten otordu eta etenaldiak kontuan hartuta eta igeltseroek 8.6 ordukoa.⁶⁰

“Lan kapitalista eta aurrekapitalistaren patroien arteko kontrasterik nabarmenena lan urtearen inguruan ematen da. Erdi Aroko egutegia oporrez beterik zegoen. Jai egun ofizialak, elizarenak alegia, ez ziren Gabonak, Aste Santua eta uda bakarrik, baizik eta atsedeen eta santu egun ugari ere bai. [...] Osotara, Erdi Aroko Ingalaterrako oporretako denbora librearen heren bat inguru osatzen zuten. Eta, dirudienez, ingelesek bere ingurukoak baino gehiago egiten zuten lan. Frantziako *ancien régime*-ak berrogeita hamar igande, laurogeita hamar atsedeen egun eta hogeita hemezortzi jai egun bermatzen zituela jasota dago. Espainian, bidaiariek aipatu zuten oporrak bost hilabetetakoak zirela.”⁶¹

Lan astearen inguruan, Bennetek honakoa esaten du bere *Life on the English Manor* liburuan, “[...] sei eguneko lan astea egiten zen urtean zehar, [...] edo ekialdeko Ingalaterran, Gloucesterreko monjeak 1266 urteko zatirik handienean lau lan eguneko astea exijitzen zuten minimoz eta bost eguneko uztaroan.”⁶²

Nekazarien denbora librearen ezarritako opor ofizialetatik gairi zabalduta zen. Garai batzuetan alderantzizko joera duen lan eskaintzaren kurbaren⁶³ ebidentziak badaude. XIV. mendeko bukaeran ezohiko soldata altuen garaian, langile askok lan egiteari uko egin zioten behar zutena baino denbora gehiagorik lan egiteari eta hauen ohiko sarrerak lortu arte soilik egiten zuten lan. Kasu honetan lan egindako egunak 120 inguru izan ziren. Estimatu da udaberri, uda eta udazkenean soilik lan egin zutela egunean 12 ordu inguruz eta beraz 1.440 ordu egin zutela lan urtean. XIII. mendeko beste estimazio batek nekazari familia batek urtean 150 eguneko lanaldia gairitu izana zalantzan jartzen du.⁶⁴

Guzti hau kontuan hartuz, aipatutako oparotasun garaian egindako 1440 orduko lan urtea muga lausoenean legoke. Beste estimazio batzen arabera, adibidez, Gregory Clark-ena, 1.620 orduko lan urtea estimatu zuen XVIII. mendeko nekazariarentzat, aurretik aipatutako 150 eguneko lan urtearekin eta 12 ordu egunean estimatuz.⁶⁵ Ian Blanchardek, 180 eguneko lan urtea estimatu zuen 1400 eta 1600. urteen arteko eperako, 11 orduko lan egunarekin, 1.980 orduko lan urtea proposatu zuen.⁶⁶ Beste estimazio bat Juliet Schorrek egindakoa da, aurreko estimazioak kontuan hartu bazituen ere, 2.300 ordu inguruko lan urtea ematen du zuzentzat, urteko egunen bi heren lan eguntzat emanaz eta bederatzi ordu eta erdiko lan egunarekin.⁶⁷

Ingalaterratik beste lurralde eta garai batzuetara joz, XIX. mendeko Valakian, non oraindik ere ekoizpen harreman feudalak existitzen ziren, urtean lanerako 190 egun ziren, klima arazoengatik, lanerako erabilgarriak. Hauetatik, 40 igande eta jaiegunak izanik, 140 lan egun geratuko ziren, zeinetatik 42 egun jaunentzako prestazio pertsonaletarako bideratu beharra

⁵⁹ Bennett (1960, 104-106 or.)

⁶⁰ Knoop eta Jones (1933, 105 or.)

⁶¹ Schor, J. (1993, 43-49 or.)

⁶² Bennett (1960, 104-106 or.)

⁶³ Soldatak igotzean langileen lan eskaintza jaistearren fenomenoak. (Marx, 1984, 330 or.)

⁶⁴ Schor, J. (1993, 47 or.)

⁶⁵ Schor, J. (1993, 45 or.)

⁶⁶ Blanchard (1978, 1-25 or.)

⁶⁷ Schor, J. (1993, 43-49 or.)

zeukaten langileek. Batez bestez 10 orduko inguruko argi orduekin egunean, 1400 ordu egiten zituzten lan lurrean, zeinetatik 420 ordu inguru jaunentzako ekoizteko bideratzen ziren.⁶⁸

Jakina denez, ekoizpen indarren garapenarekin bat, feudalismoak zekarren gizarte antolaketa iraungituta geratzen joan zen. Feudalismoa amaitutzat eman daitekeen garaia zehazterakoan eztabaida sakonak egon diren arren, hau, ekoizpen modu hegemoniko bezala, XVIII. mendea eta gero jarraitu izana inork gutxik defendatu du. Kapitalismoa XVI. mendea baino lehen finkatu izana bezain gutxik. 1000 eta 1800 arteko epean feudalismotik kapitalismorako bidea egin zuen eboluzio ekonomiko jarraitu bat eman zen. Kontuan hartu behar da, feudalismotik kapitalismorako trantsizio klasiko honen eskema Europako herrialdeetan aplikatu daitekela soilik, ondoren zabalduz joan zena munduko gainontzeko txokoetara.⁶⁹

Gizarte feudaletik kapitalistararteko jauzirako, gizarte feudalaren barruan emandako garapen ekonomikoaz gain beharrezkoa izan zen ekoizle zuzenak ekoizpen baliabideetatik aldentzea, kapitalismorako oinarri den soldatapeko lanaren zabalpena emateko. Estatuen bidez emandako ekimen extraekonomikoak (Lurraren erabilera tradizionalaren, eskubide feudalen edota lan pertsonalean oinarritutako jabetza pribatu txikien ezabapena, legeen bitartez lana behartzea...) erabili izan ziren, ekoizpen modu kapitalista eta lan prozesuaren forma modernoari hasiera emateko.⁷⁰

3.2. Laneguna Kapitalismoan

Ekoizpen modu kapitalistarekin bat etorri zen egun "ohiko" bezala dugun lanegun modernoa. Aurretik lan egiteko zeuden harreman forma ezberdinak (joputza, prestazioak, jabetza txikiak...) ezabatuz joan zen eta soldatapeko lana orokortuz. Honen bidez lan merkatuaren menpe geratu da lanegunaren ezarpena.

Kapitalismoaren garapenarekin batera aurretik imajinaezinak ziren aldaketak etorri ziren. Ekoizpenaren, teknologiaren edota zientziaren garapenarekin batera, hazkunde izugarria eman zen lanegunaren luzaeran. Gainlana jasotzearen formaren aldetik ere aldaketa nabariak eman ziren. Mirabe-lanean, adibidez, norberarentzako egindako lana eta gainlana denboran eta espazioan banatuak ziren. Adibidez, nekazari batentzako bizi baliabideak lortzeko beharrezko lana 6 ordukoa izanda eta gainlana 6 ordukoa izatekotan, berarentzako lan egingo zuen lehen epe horretan lursail zehatz batean egingo luke eta jaunarentzako izango zen ondorengo gainlana beste lursail batean. Hau da ekoizpen modu honetan bi denbora epe hauek bata bestearengandik independienteki ematen ziren. Bi lan denbora hauen arteko muga begi-bistakoa izanik. Ekoizpen modu berrian, askoz ezkutukoagoa bilakatu zen, izan ere, beharrezko lana eta gainlana aldi berean ematen dira, osotasun baten parte bilakatzen dira.

Aurretik aipatu dugun bezala, laneguna lan merkatuaren arabera determinatzeak eragin nabariak izan zituen honen luzapenean. XVI. mendetik XIX. mendera bitartean lanegunaren bilakaerak langileengan zituen ondorioak azterketa emanez, esplotazio mailaren hazkundearen xede ezinbestekorako lanegunaren barneko gainlanaren luzapena kapitalismoaren joera bat bezala identifikatzen da. Hasierako garai hauetan, lanegunak langileen bizi baldintzak berak okertzen zituen urtean 4.500 orduetik gorako lan orduen bidez. Garai hartako joera, lan

⁶⁸ Marx (1984, 286 or.)

⁶⁹ Hobsbawm (2003, 4-5 or.)


⁷⁰ Marx (1984, 891-937)

indarraren suntsipena bera zela hausnartu zuen Marxek, lehia askeak puntu horretara jotzen zuela. Honen erantzukizuna, gainera ez zen soilik kapitalista indibidualaren borondatearen pean. Izan ere, “lanegunaren ezarpen normala kapitalista eta langilearen arteko borroka multisekularren emaitza” bezala identifikatu zuen, aipatu bezala “borroka honen historiak, baina, bi joera kontrajarri agerian uzten” zituela esanaz.⁷¹

Kapitalismoaren garapen goiztiar honek gizartea beraren etorkizuna kolokan jartzeak erreakzioa ekarri zuen XIX. mendean lanegunaren mugaketa legalaren forman. Lehen lege murriztaile hauek lanegun luzeak bermatzen bazituzten ere, garai haietan ematen ziren lanegun efektiboaren murrizketa gogoangarriak aurreikusten zituen, orduko lanorduen heren bateko murrizketekin.

Ordutik egondako produktibitate hazkundeak bermatuta eta langile klasearen mugimenduak behartuta lanorduek joera beherakorra izan dute. 2. Irudian ikus daitekeen bezala, XIX. mende bukaeratik I. Mundu Gerrara arte beherazko joera hori apala izan zen munduan, urteko lanorduen %0,31ko batezbesteko jaitsierarekin.⁷² Epe honetan emandako ekoizpen gaitasun handituaren zati bat besterik ez ziren langile klasearen hobekuntzan nabaritu, garai honetan langileen errentaren gaineko lanaren partaidetzak behera egin izanak erakusten duenez.⁷³

2. Irudia. Lanorduen batezbesteko urteko murrizketa.



Iturria: Huberman eta Minns (2007, 548 or.)

2. Irudiak argi uzten duen bezala, gerra arteko epean etorri zen lanorduek kapitalismoan zehar izan duten beherakadarik nabarmenena. 1913tik 1938ra munduko lanorduek urteko %1,06ko batezbesteko jaitsiera izan zuten garai honetan. 3. Irudiak erakusten duen bezala, European


⁷¹ Marx (1984, 326 or.)

⁷² Huberman eta Minns (2007, 548 or.). Ondoren aipatzen diren lanorduen inguruko datuak iturri berdinetik ateratakoak dira, kontrakoa esaten ez den bitartean.

⁷³ *Labor share* ingelesez. Indize hau erabilgarria bada ere ekoizpen sozialaren banaketa ulertzeko arazoak dakartza bere barnean, izan ere “Still, the labor share measure does have at least one limitation: it cannot account for between-worker inequality. For example, the compensation of a highly paid CEO and a low-wage worker would both be included in the labor share. This limitation can be mitigated by supplementing the labor share data with other data, including wage data and information on income inequality” (Bureau of Labor Statistics, 2017)

produktibitatearen hazkundera gainontzeko beste garaiekin alderatuz oso handia izan ez bazen ere, inoizko jaitsiera nabarmenena eman zen lanorduetan. AEBetan I. Mundu Gerraren eragin zuzenik jaso ez zutela eta oraindik ere lanorduen jaitsiera gogoangarriagoa eman zen, urteroko %2,11 batezbesteko murrizketa hain zuzen. Langile mugimendua bere gorenean zegoen momentua izan zen eta honek eragin nabarmena izan zuen, errentaren gaineko lanaren partaidetzak gora egin baitzuen.

3. Irudia. Produktibitatearen urteroko batezbesteko garapena.



Iturria: Bergeaud, Cette eta Lecat (2016)

II. Mundu Gerrarekin batera lan orduen murriztapena gelditu bazen ere, gerraosteko garaian kapitalismoaren urrezko hamarkadak bezala ezagutu izan direnak etorri ziren, gerrak utzitako berreraikuntzaren beharra kapital akumulazioaren dinamika martxan jartzea ahalbidetu baitzuen. Hazkunde garai honetan eraiki ziren “ongizate estatuak” deitu izan direnak, langile mugimenduen indarra zela eta kapitalaren kontzesio bezala hartu izan dena. Ekoizpenaren eta produktibitatearen hazkunde nabaria emateaz gain, lanorduak murrizteko joera berreskuratu zen epe honetan, urtero %0,38 batean murriztu ziren batezbestez. Beraz, lanorduen murrizpena egonda ere, ez zen gerra arteko murrizpen maila berreskuratu.

Azkenik, antolaketa ekonomiko kapitalistak krisi zikliko nagusi batera eraman zuen gizartea 1973an. Honek eta langile klasearen antolakuntza gaitasun murriztuak ongizate estatuaren desagitea eta ekoizpen sozialaren gaineko langilearen parte hartzea murrizpenari atek ireki zizkion. Garai honetan produktibitatearen eta, orohar, ekoizpenaren hazkundera eman arren lanaren konpentsazioaren geldialdi bat ekarri zuen, *produktibitate-ordainketa aldea*⁷⁴ bezala izendatu zaiona. 1973tik 2008ra ekoizpen per capitak eta produktibitateak izandako hazkundera⁷⁵ ez zuen errentaren gaineko langile klasearen partaidetza handitu, izan ere OECDko herrialdeetako lanorduen urteko batezbesteko %0,27ko murrizketa egon bazen ere,⁷⁶ ongizate

⁷⁴ *Productivity-pay gap* ingelesez.

⁷⁵ Urteko batezbestez BPG per capitak %1,8ko hazkundera izan zuen Eurogunean eta %1,9koa AEBetan. Produktibitatea %2,1ean hazi zen Eurogunean eta 1,7 AEBetan. (Bergeaud, Cette eta Lecat, 2016)

⁷⁶ OECD (2019)

estatuaren bidezko zeharkako soldataren desegitea eta langileen konpentsazioen geldialdia balantza kapitalaren aldera bultzatu dute.

Besterik gabe, kapitalismoan zehar lanorduek izandako bilakaera honen zergatiak aztertzea pasako gara. Kapitalismoaren hasierako garaietatik 2008ko krisialdira arte.

3.2.1. XIV. mendetik XVII. mendera: Lan orduen hazkundera

Historia hurbilean lan orduen inguruan emandako mugaketa legalak, hasieran aipatutako *La Canadienseko* gatazkaren ondorioz emandakoa adibidez, hauek muga batetik behera mantentzeko eman diren arren, feudalismotik kapitalismorako trantsizio garaian lan orduak koaktiboki handiarazteko legeak ezarri ziren.

Hala, XVI. mendetik XVIII. mendera egindako lanaren inguruko legeak lanorduek handiarazteko funtzioa izan zuten. Funtsezko tresnak izan ziren lege hauek kapital metaketa abiarazteko. Hasierako lan orduen igoera koaktibo hauek, kapitalismoak behar zituen lan harremanak ezartzeko prozesua izan zen. Arrazoi ezberdinengatik lan indarra saldu gabe zuren desjabetuak hauen lan egiteko gaitasuna saltzera behartzeko prozesua hain zuzen.

Kapitalismoaren garapenerako behar beharrezkoak izan ziren, hasierako epe horretan, lege koaktibo horiek. Izan ere, garai haietan, batez ere Izurrite Beltzaren garaian, lan merkatuan zegoen langile eskasiarengatik, zaila zen “arrazoiko terminoetan langileak topatzea”.⁷⁷ Hau da, lan indar eskasiak ezarritako soldata altuek, industriaren garapena kolokan jarri zuten. Honen ondorioz “arrazoizko” soldata eta lanorduek legeak ezarri ziren, gutxieneko lanorduek eta gehieneko soldata ezarri ziren.⁷⁸ Lan indarra saltzea bizi baliabideak lortzeko modu nagusi bilakatu zenean eta beraz, lan indarra merkatuan aise aurkitzen hasi zen momentuan lege hauetariko askok zentzua izateari utzi zioten.

Bitxikeria bezala, lan orduen bortxazko handipen legal hauek ekarritako lan egunak, hurrengo mendeetan zehar joera kapitalistak berak sortu zituen lanorduekin alderatuz motzak dirudite. Hasieran behartutako gutxienezko lan orduak, gerora lanaldiak mugatzeko ezarritako lan ordu berak bilakatu ziren. Adibidez, 1836 eta 1858. urteen artean Massachusettsen 12 urte beherako haurrendako egunean 10 orduko muga ezarri zen, XVII. mendeko artisau, nekazari eta arotzen lanordu normala.⁷⁹

Kapitalismoaren nahiak bere hasierako epean, hau da, oraindik ere lanaldiaren hazkundera koaktiboa behar zuen unean, lanordu gutxiago ezarri zizkion “behartutako” langileari kapitalismo garatuko langile “askearekin” alderatuta, zeinak neurri koaktiborik gabe, “borondatez” (hau da, ez legeen bitartez beharturik, baizik eta sozialki beharturik) lanaldi luzeagoak egiten zituen.

Kapitalismoaren hasierako urte hauetan, izugarri hazi ziren lan orduak. Nahiz eta sektore batetik bestera lanorduek ez ziren batere antzekoak, sektore batzuk lan ordu luzeengatik ziren ezagunak. Adibidez, buztingintzan egunean 15 ordu baino gehiagoko lanegunak ziren, astebururik gabe, 12, 14 edo 15 orduko lanegunak fosforoaren industrian, 78,5 orduko lan asteak paper fabriketan, okindegietan 18 ordu arteko lanaldiak zituzten, trenbideetako langileak etenik gabeko 20, 40 eta 50 ordu arteko lanaldiak salatu zituzten. Hau da, urtean, 4.200, 4.900 edota

⁷⁷ Byles (1872, 211 or.)

⁷⁸ Marx (1984, 328 or.)

⁷⁹ Marx (1984, 327 or.)

5.200 ordu arteko zifretara iristen ziren lan orduak, aurreko ekoizpen moduko lan orduak hirukoiztera iritsiz.⁸⁰

1830ko hamarkadatik aurrera, lanordu luzatu hauek ekartzen ari zuen gaixotze orokortuaren erantzunez Europako herrialde industrializatuek lan eguna 12 ordura murrizteko legeak ezartzen hasi zituzten. 1770ko hamarkadako egile batentzat *izu-etxe* baten propio zen lanegunera murriztu behar izan zen hamarkada batzuk beranduago laneguna.⁸¹

3.2.2. XIX. mendetik I. Mundu Gerrara: Lan orduak murrizteko legedia

Esan bezala, 1830ko hamarkadan lan orduak murrizteko legeak zehazten hasi ziren. Hala ere, lan orduak murrizteko joera hau ez zen automatikoa izan. Alde batetik zein bestetik egindako presio eta aldarrikapen jarraituen fruitu izan ziren. Langileria indartsu zegoen garaietan Estatu langile klasearen aldarriak jasotzera behartua ikusten zen.⁸² Alderantziz langile mugimenduaren presioa lausotzean, Estatuak jarrera malguagoa hartzen zuen legeen murriztaileetan. 1836ko Ingalaterrako lege murriztailean 13 urtetik beherako umeei 8 ordu baino gehiagoko lan orduak debekatu arren, burgesiak agitazio kanpaina bat abiarazi zuen parlamentu ingelesak aipatutako muga 13 urtetatik 12 urtetara jaitsi zedin. Langileriaren erantzuna zela eta jaitsiera hori onartu ez zen arren, posizio ezberdinen joerak argi ikusi ziren.

Aipatu bezala, kapitalismoaren hasierako garaian lan orduen izugarritzko hazkunde bat eman zen. Ordea, XIX. mendean langa jo eta gero jaitsiz joan egin ziren herrialde industrializatuetan. 1850. urtean Ingalaterran *Factory Act* delakoa onartu zen, batezbesteko 10 orduko laneguna ezarri zuen, urtean 3.000 ordu ezarri muga legal bezala.⁸³ Mota honetako legeak herrialde industrializatuetan zabaldu baziren ere, errealitatean halako lan egunak aplikatzeko denbora pasa behar izan zen. Joseph Zeiselen datuei jarraiki, estatubatuar arrunt baten urteko lanorduak 1850eko hamarkadan 3.150-3.650 ordu artean zeuden oraindik ere.⁸⁴ Adibidez, nahiz eta *Factory Act* horrek, asteko lehen 5 egunetan ordu eta erdiko atsedendialdiak zehazten zituen, lan inspektoreak atsedendialdi horiek betetzen ez zirela ikusi eta erantzukizunak eskatzean, patrioiek lana gelditzeko ezintasuna adierazten zuten “langileak fabrika uzteko egiten zuten erresistentzia zela eta”.⁸⁵

Dena den, nahiz eta legeen onartzea ez zekarren horren aplikazio zuzenik, kapitalismoaren lehenengo urteetan eman zen lan orduen sekulako igoera egonda ere, behin handipen hori

⁸⁰ Marx (1984, 292-308 or.)

⁸¹ Marx (1984, 332-335 or.)

⁸² Behartua diot, izan ere legedi horiek onartuak izateko erresistentzia nabaria ematen zen. Izan lege murriztaile bat onartu arren, legea errealitatean aplikatzeko baliabide nahikorik ez jartzen edota legeak berak onartzeko ematen ziren erresistentziak. XIX. mende erdialdean meatza zen legeak onartu arren hauen aplikaziorik eman ez zen sektoreetako bat. Sektore honetan lurjabe eta kapitalisten interesak antzekoak izanik, jabeen interesak oso batuta zeuden. Hura izanik egoera, meatzariak epaiketara jotzean, epaileek langileen salaketen aurrean jarrera “eszeptikoa” hartu zuten. Meatzariak legearen aplikazio eza salatzean epaileak galdetu zuen zergatik legearen aplikazioa ez ote zuten langileek behartzen. Langileak patrioiaren presioak azpimarratu ostean honakoa izan zen epailearen erantzuna “Baina akaso uste duzu patrioiek langile bat jazartuko luketela legearen aplikazioa eskatzeagatik?”. (Marx, 1984, 604 or. [321. nota])


⁸³ Astelehenetik ostiralera laneguna goizeko 6etatik arratsaldeko 6etara izan beharra zuen, 12 ordu hauetatik ordu erdi gosarirako ziren legeaz eta ordu bat bazkarirako. Larunbatean lanaldia goizeko 6etatik arratsaldeko 2ak arte eta 8 ordu hauetako ordu erdi, gosarirako tartea behar izan. Beraz, osotara, 10,5 orduz asteko lehen 5 egunetan eta 7,5 ordu larunbatetan. (Marx, 1984, 288 or.)

⁸⁴ 70 orduko batezbesteko lan astearekin, 45-52 lan aste tartean kontuan hartuz. (Zeisel, 1958)

⁸⁵ (Marx, 1984, 290 or.)

emanda, 4. Irudian ikusi daitekenez, nahiko egonkor mantendu ziren lan orduak herrialde industrializatuetan XIX. mendean zehar. Herrialde industrializatuak erreparatu, salbuespenak salbuespen⁸⁶ XX. mende hasiera arte lan orduak, emandako produktibitate igoera handia kontuan hartuta, ez ziren erlatiboki gehiegi jaitsi. Europako herrialde batean ere ez zen 55 orduko lan astetik jaitsi.

4. Irudia. Urteko lan orduen bilakaera (1870-2000).



Iturria: Huberman eta Minns (2007, 548 or.)

Erresuma Batuko kasuan adibidez, ordu bat baino gutxiagoko jaitsiera egon zen 1870 eta 1913. urte artean, nahiz eta BPG per capitak %46ko hazkundera izan zuen.⁸⁷ Denbora epe berdinean egondako industria garapenei esker produktibitatea %69an igo zen, hazkunde xumea, dena den, gainontzeko Europa mendebaldeko herrialdeekin alderatuz. Horrenbestez, 1870. urteko langile batek 57 orduetan ekoizten zuena 1913ko langileak 34 ordu baino gutxiagotan egiten zuen.⁸⁸ Hein batean, ekoizpen gaitasun hedatu horren zati bat langileen bizi baldintzak handituz islatu zen, soldata errealek %48 batean egin baitzuten gora 1870etik 1913ra doan tartean.⁸⁹

Frantzia, beste aldetik, lan orduen %7 inguruko jaitsiera egon zen epe honetan per capitako BPGa %85eko hazkundera izan zuen.⁹⁰ Produktibitatea ere bikoiztu egin zen arren soldata errealek Erresuma Batuko soldatek baino igoera eskasagoa izan zuten, %30 ingurukoa.^{91 92}

Hala ere, hemendik ezin genezake jakin egondako produktibitatearen igoerak benetan soldata erlatiboan izandako eragina. Izan ere garai haietan soldata errealek determinatzen duten bizi

⁸⁶ Belgika, Danimarka eta Australia bezalako herrialdeekin lanaldien beherakada nabarmenak izan zituzten hamarkada hauetan zehar.

⁸⁷ Broadberry, Campbell, Klein, Overton eta Van Leeuwen (2015)

⁸⁸ Maddison (2006, 351 or.)

⁸⁹ Pérez (2005, 15 or.)

⁹⁰ Maddison Project Database (2018)

⁹¹ Maddison (2006, 351 or.)

⁹² Boyer (1983, 52-57 or.)

baliabideen kostuak jakin beharko genituzke, hauen kostuen beherapen batek soldata errealen hazkundera azaldu lezake soldata erlatiboetan eraginik izan gabe. Labore honetarako erabilgarria suertatzen da soldata erlatiboarekin harreman estua duen indizea, errentaren gaineko lanaren partaidetza. Indize honen iturri ezberdinek garai horretarako lanaren partaidetza nahiko egonkor bat adierazten dute Erresuma Baturako eta beherapen nabarmena Frantziarako.⁹³ Beraz, Erresuma Batuan epe honetan zehar emandako produktibitatearen handipen honek soldata errealean hazkunderaren bidez islatu zela antzeman daiteke. Frantzian, ordea, produktibitatearen hazkundera nabaria izanda ere, eragin apalagoa izan zuen soldata errealean gainean.⁹⁴ Guzti hau kontuan hartuta, gainbalio erlatiboaren hazkundera baten bitartez soldata erlatiboaren murrizketa bat eman zela antzeman daiteke.

Aipatzekoa da ere, lehenengo urte hauetan, sindikatuen indarra ez zegoela oraindik oso garatuta eta hauen garapenarekin bat etorri zen lan orduen murrizketa. Ikusi dugun bezala, kapitalismoaren lehen urteetan langileek ez zuten gaitasunik izan lan indarra bere balio sozialarengatik saltzea lortu, soilik langileak klase bezala antolatzen joan ziren heinean lortu zuten ekoizpen sozialaren zati handiagoa eskuratzea. Garai honetako produktibitatearen hazkundera ondorioz, kapitalaren partaidetza handitu zuen garai hauetan.

Azkenik, aipatzekoa da garai honetan herrialde industrializatuen joerak aztertzeko Erresuma Batuko kasua bereziagoa dela Frantziako adibidea baino. Garai haietan, Erresuma Batua garatuago zegoen industrializatutako herrialde gehienekin alderatuz, sindikatuak garatuagoak zeuden, produktibitatea nabariki handiagoa zen... Beraz, Frantziako kasua litzateke estrapolagarriagoa gainontzeko herrialde industrializatuak ulertzeko. Esan bezala, Erresuma Batuko lanaren partaidetzaren mantentze hori gehienbat soldata errealean hazkunderarengatik azaldu daiteke. Soldata erlatiboaren hazkundera hau halaber, Erresuma Batuko sindikatuen indar erlatiboarengatik azal daiteke, kontinenteko langile mugimendua baino zabalduagoa baitzegoen ordurako.

3.2.3. Gerrarteko garaia eta 29ko Crack-a: Lanorduen murrizketa estrukturala

I. Gerrarteko garaia

Kapitalismo garatuaren lanorduen beherakadarik nabariena XX. mendeko lehen laurdenean eman zen. Batez ere lehen mundu gerratik 29ko *crack*-era arte. Epe honetan mundu mailan lan astea 57 orduetatik 48 ordu ingurura murriztu zen batez bestez, %16ko murrizketa.

Murrizketa honen arrazoiak ez dira ekonomikoak soilik, faktore ekonomikoek abagunea sortu zuten lanorduak arrazoi politikoengatik jaisteko. Lehen Mundu Gerra bitartean Europako herrialdeak jasandako atzeraldia salbu,⁹⁵ ekonomia hazten jarraitzen joan zen. AEBak, gerraren eragin zuzenik jaso ez zutenak, BPG *per capitaren* %30eko eta produktibitatearen %42ko igoera izan zuen 1913tik-1929rako tartean. Europan gerra behin bukatuta %35eko hazkundera egon zen

⁹³ ILO eta OECD (2015, 15 or.) eta Prados de la Escosura eta Rosés (2003, 13 or.). Kontuan hartuta Frantziako soldaten zenbatekoaren %20-30 artean gizartearen goiko dezilaren esku geratzen zela, errentaren gaineko lanaren partaidetzaren murrizketa honi oraindik aldagai hau gehitu beharko genioke. (Piketty, 2014, 254 or.)

⁹⁴ Aipagarria da termino absolutuetan lanaren partaidetza handiagoa zela Frantzian Erresuma Batuan baino, nahiz eta soldata errealak txikiagoak izan. Hau da, Frantziako langile klasearen bizi baldintzak okerragoak izanik ere, ekoizpen sozialaren proportzio handiago bat zihoan hauen eskuetara.

⁹⁵ %22 egin zuen bera Europa aldeko BPG per capitak 1913tik 1919ra. Produktibitateak aldiz %11 batean. (Bergeaud, Cette eta Lecat (2016)

BPG per capita eta produktibitatearen %43koa.⁹⁶ Epe honetan soldata errealak ere goranzko joera izan zuten, nahiz eta hazkunde xumea izan.⁹⁷ Faktore hauen eragin bezala, lanaren partaidetzak gora egin zuen epe honetan, egondako produktibitate hazkunde langileen bizi baldintza materialak hobetu eta lanaldia murriztu izanari esker hein handi batean. Baina esan bezala, joera ekonomiko hauek lanorduak murrizteko bermatzen duten aukera materiala ez da automatikoki loturik egon hauen murrizte efektiboari. Izan ere, lanorduen murrizketa bi faktore nagusirengatik eman zen.

Batetik, ematen ari zen ekoizpen gaitasunaren hazkunde merkaturatutako ondasunen kontsumitzaileak behar zituen, beharrezkoa izanik langile klasearen kontsumo gaitasuna handiaraztea.

Bestetik, langile mugimendua bere gorenean zegoen⁹⁸ eta honen indarra zela eta langile klaseak bere bizi baldintzak hobetzeko gaitasuna izan zuen. Hau argi geratu zen langile klaseak eskubide politikoak handitzea lortzeko egiten ziren borroketan, adibidez, bozka eskubidea zabaltzean lan eguna murrizteko legediak zabaldu ziren.⁹⁹ Urte hauetan eman zen XIX. mendetik aldarrikatua zen 8 orduko laneguna herrialde ezberdinetako sektore ezberdinetan ezartzea eta prozesu honen emaitza bezala 8 orduko lanegunaren ezarpen legala Espainian (1919), Frantzia (1919), Italian (1924), Austrian (1924), Belgikan (1926)... Negoziaketa kolektiboa bezalako tresnak ere garai hauetan zabalduz joan ziren.¹⁰⁰

Aipatu beharra dago ezberdintasun kualitatibo bat egon zela XIX. mendeko eta XX. mendeko lege murriztaileen hauen artean. Izan ere, XX. mendeko lege hauek hein batean sistemak berak behar bazituen ere, langile mugimenduaren indarra izan zen egoera behartu zuena hauek ezarriak izan zitezkeen. XIX. mendeko legeak, aldiz, nahiz eta langile klasearen baldintzak hobetu, Estatuak berak bultzatu zituen hasierako urteetako kapitalismoak eragindako bizi baldintzek gizartearen bideragarritasun bera kolokan jartzen zutela ikusita.¹⁰¹

Urte hauetan zehar emandako produktibitatearen hazkundeari lanorduen murrizketa eta soldata errealean hazkundeari erreparatuta, garai honetan soldata erlatiboa mantentzeko joera hartu zuela antzeman daiteke.

II. 1929ko Crack-a

1929ko Crackarekin ekonomiak gainbehera egin zuen, 1936 arte ez zen krisi aurretiko BPG per capita berreskuratu. Krisiaren zergatiari erreparatzean ikusten da zuzenki loturik doazela aztertzen gabiltzan aldagaiekin. Esan bezala, XX. mendean zehar aurrerapen tekniko ugari eman ziren, kateko ekoizpena eta elektrifikazioa kasu. Honek ekarritako produktibitatearen hazkundeak gaitasun produktiboaren *soberazko* handipen bat ekarri zuen, deflazioa eta fabrika askoren itxiera ekarri. Zentzu honetan aipagarria da urte gutxitara Hubbert ikertzaileak honen inguruan egindako afirmazioa:

⁹⁶ Bergeaud, Cette eta Lecat (2016)

⁹⁷ Ingalaterran %7,8 batea hazi ziren soldata errealak 1913tik 1929ra. (Bank of England, 2019b) %15 inguru Frantzia (Boyer, 1983, 52-57 or.)

⁹⁸ Garai hauetan ematen da Errusiako Iraultza, Alemaniako 1918ko altxamendua, hirurteko boltxebikea deituriko garaia...

⁹⁹ Huberman eta Minns (2007, 541-544 or.)

¹⁰⁰ National Industrial Conference Board (1921, 6-7 or.)

¹⁰¹ Luxemburg (1974, 194-195 or.)

“No está de más enfatizar que las tendencias de [productividad, producción y empleo] que se están describiendo eran completamente evidentes antes de 1929. Estas tendencias de ninguna manera son el resultado de la presente depresión, y tampoco son el resultado de la Guerra Mundial. Por el contrario, la presente depresión es un colapso que resulta de estas tendencias de largo plazo”¹⁰²

Krisiaren aurretiko hazkunde epean egondako ekoizpen handipena egonda ere merkatua ez zen gai izan produktibitatearen ondorioz ordeztutako lanpostuak berrezartzeko.¹⁰³ Honek 1. Taulak erakusten duen bezala, langabeziaren hazkunde ikaragarria ekarri zuen.

1. Taula. Desempleguaren bilakaera 1929-1932 bitartean AEBetan, Erresuma Batuan eta Alemanian.

	AEB	Erresuma Batua	Alemania
1929	1.864.000	994.000	1.679.000
1932	13.182.000	2.273.000	5.575.000
Hazkundera	%607,2	%128,7	%232

Iturria: Blum, Cameron eta Barnes (1966, 842 or.)

Gainekoizpen krisiaren fenomeno hau aurreko krisialdi kapitalistetan¹⁰⁴ ere eman zen arren, fenomeno erlatiboki berria zen historiari erreparatuta, aurreko ekoizpen moduetan ekoizpen eskasiek krisiak sortzen zituzten bitartean, kapitalismoan paradoxikoa den fenomeno ematen da, ekoizpen gaitasun biderkatuek, produktibitatearen hazkundera gainproduktio krisietara eramatea.

Krisiaren eraginez aipatutako BPG per capitaren geldialdiaz gain produktibitatearen geldiune bat eman zen. Joera orokorra izan zen, lanorduak ere konstante mantendu baitziren Europan 1929-38ko tartean. Ekoizpenaren eta produktibitatearen geldialdiarekin lanorduen murrizketa modu zailean eman zitekeen hauen aldaketari erreparatuz. Ala ere, emandako desempleguaren hazkundera, 1. Taulan agertzen den bezala, langabetuen kopurua ezandarazi zuen, AEBetan langabetuak zazpikoiztu ziren adibidez. Honek lanegunaren murrizte baterako baldintza bat osatzen zuen, erabili gabeko lan indar hau erabili eta lanaren banaketa ematekotan. AEBetan eman zen noranzko honetarako jarrera. New Deal (1933) politika sorten bidez, hurrengo hamarkadetan Europan sustatuko zen politiken aurrekari bezala hartu daitekena, langabezia murrizteko politika bezala hartu zen lan orduen murrizketa, 1929tik 1938ra %24 batean jaitsi zena.¹⁰⁵

3.2.4. II. Mundu gerra eta ongizate estatuaren hedapena

II. Mundu Gerraren eraginez lanorduen murrizteko joerak geldialdia izan zuen. Gerran zuzenean murgildutako herrialdeetan lan indarraren behar gehigarriari erantzuteko mekanismo ezberdinak bultzatu ziren, izan emakumeen lan indarra zabalduz izan lan orduak zuzenean

¹⁰² Hubbert (1940, 12 or.)

¹⁰³ Mills (1934)

¹⁰⁴ 1873ko depresio handia, adibidez, Bigarren Industria Iraultzaren ekoizpen hazkunderarekin lotuta egon zena.

¹⁰⁵ Wolman (1938, 3. or)

zabalduz.¹⁰⁶ Gerra egoera honek ekarritako produktibitate eta ekoizpen per capitaren gelditzeak ez zuen beraz lanorduen murrizketa baterako abagunerik sortu.

Dena den, II. Mundu Gerra ondorengoak utzitako egoera politikoak eragin ekonomiko sakonak utzi zituen. XX. mende lehen erdialdeko testuinguru politikoa oso ezegonkorra izanik, langile mugimenduaren *arrisku iraultzailea* desaktibatzeke nahiak eta Sobietar Batasunaren posizio politiko indarberrituak eraginda bloke kapitalistak kontzesio ugari eskaini behar izan zituen gizarte segurantzaren bezalako zeharkako soldaten bitartez, Europan bereziki “ongizate estatu” delakoan sorrerarekin. Frantzia honen adibide argi bat izan zen “Pétainen erregimenaren hondoratzea, Estatu burgesaren eztanda da. Goi administrazioa, polizia, justizia, armada –Estatu baten funtsak– naziekin kolaboratu dute aktiboki, patrioen parterik handiena bezala. Beste aldetik, langileak, nekazariak eta gazteria, komiteetan antolaturik, bere eskuetan dituzte borrokatzeko erabili dituzten armak, eta ez dute ulertzen gauzak berriz ere “lehen bezala” izatea.”¹⁰⁷

Burgesiak emandako kontzesio hauek mugimendu iraultzailearen beldurrez izanda ere, hauek ahalbidetzen zituen testuinguru batean eman ziren. II. Mundu Gerrak utzitako suntsipen ekonomiko eta soziala, akumulaziorako tarte gogoangarria bermatzen zuen. Beraz, kapitalak halabeharrez emandako kontzesiorako aukera materialak zeuden garaiko testuinguruan.¹⁰⁸

Hala, lanorduen murrizpenerako joera bueltatu zen gerraosteko epean. Nahiz eta gerra arteko epean eman zen lanorduen murrizketarekin alderagarria ez izan, 1938tik 1970era mundu mailako lanorduak %12 batean murriztu ziren. Epe honetan AEBetako lanorduen murrizpenak geldialdia izan zuen arren asteko lanorduak 4-5 orduz jaitsi ziren Europako herrialde askotan, soldata errealeen hazkunde garrantzitsuak ematearekin batera.¹⁰⁹ Guzti honekin batera produktibitateak sekulako igoera izan zuen. AEBetan %74ko igoera izanda ere, hazkunde erlatiboki txikia da Europa aldean emandako batezbesteko %370eko hazkundearekin alderatuz. Guzti honek gerra osteko geldialdia eta gero berriz ere akumulazio dinamika martxan jartzea ahalbidetu zuen. Hau kontuan hartuta, soldata errealearen hazkundeaz gain zeharkako soldataren agerpenaren bidez langile klasearen kontsumo gaitasuna handitzeak ekoizpenaren hedaldi garai honetan errentaren gaineko lanaren partaidetza mantentze bat antzeman daiteke.

3.2.5. 1973ko krisia eta produktibitate-ordainketa tartearen dibergentzia

1970ko hamarkadako petrolioaren krisiak berriz ere kolokan jarri zuen kapitalismoan hazkunde egonkor bat aurrera eramateko zuen zailtasuna. Gerra osteko egoeran *beharrezkoak* eta *posibleak* ziren kontzesio hauek, irabazi tasa mantentzeko zailtasunak ari zituen ekartzen, eta langile mugimenduaren arriskua arinduta, kontzesio hauen desegiteko aukera ireki zitzaion kapitalari. Politika ekonomikoaren aldaketa sakona ekarri zuen honek.¹¹⁰ Aldaketa ekonomiko hauek indartzeko bidea, 80ko hamarkada hasieran batez ere eman zen, doktrina neoliberalaren zabalpenarekin.¹¹¹ Honek merkatuaren desregularizazioaren, pribatizazioaren eta globalizazioa

¹⁰⁶ Emakumeen lan indarraren parte hartzea %67 batean hazi zen AEBetan, adibidez, 1941etik 1944era (Miller, 1980, 1 or.) Alemania Nazian 10-12 ordurarteko lanaldiak zabaldu egin ziren. (Alpha History, 2019)

¹⁰⁷ Arrizabalo, X. (2014, 293-294 or.)

¹⁰⁸ Arrizabalo, X. (2014, 295-296 or.)

¹⁰⁹ AEBetan, Erresuma Batuan edo Frantzia bezalako herrialdeetan %70-85 arteko igoera izan zituzten soldata errealek. (Boyer, 1983, 52-57 or.)


¹¹⁰ Orduan eman zen, adibidez, metal preziatuetan oinarritutako patrioekin behin betiko haustura, honek ezin baitzuen ekonomiaren joerei erantzun.

¹¹¹ Arrizabalo, X. (2014, 336-369 or.)

bultzatuz, lehia kapitalistari bultzada berri bat eman zion, irabazi tasa handiagotuz.¹¹² Honen ondorioz langile klasearen bizi baldintzak hobetu zituen zeharkako soldata desegiten joateko oinarriak finkatu zituen.

73ko krisitik 2008. urteko krisira lanorduak jaitsiera oso apala izan dute. %0,27ko urteroko jaitsiera baino ez dute izan OECD barruan dauden herrialdeek.¹¹³ Garai honetan ordea, BPG per capita urtean %1,84ko eta %1,91ko batezbesteko igoera izan zuen Europa aldean eta AEBetan hurrenez hurren.¹¹⁴

5. Irudia. Produktibitate eta konpentsazioen hazkundera AEBetan (1948-2017).



AEBetan, adibidez, politika hauek eragindako ageriko aldaketa bat ikusi zen. 5. Irudiak adierazten duen bezala, 1950etik langile arruntaren sarrerak produktibitatearekin batera igotzen ziren arren, 73ko krisiaz geroztik banaketa nabarmena eman zen bi faktore hauen artean. 1948tik 1973ra produktibitatea %96 batean igo zen moduan orduko konpentsazioa %91 batean hazi zen, nahiko joera antzekoak izanik. 1973tik 2017ra ordea, produktibitatearen hazkundera bere horretan jarraitu bazuen ere, langile arruntaren sarrerak izoztu ziren. Produktibitatea %77ko hazkundera izan zuen bitartean orduko konpentsazioak %12 batean soilik hazi ziren, hau da ordainketak baino 6,2 aldiz gehiago hazi zen produktibitatea, eta dakigun bezala produktibitate hori ez zen lanorduak gutxitzeko erabilia izan.¹¹⁵


¹¹² Roberts, M. (2017)

¹¹³ OECD (2019)

¹¹⁴ Bergeaud, Cette eta Lecat (2016)

¹¹⁵ Economic Policy Institute (2018)

6. Irudia. Produktibitate eta konpentsazioen hazkundera manufaktura sektorean (1970=100).



Iturria: Erumban eta Vries (2016, 14. or)

6. Irudian ikusten den bezala, Europako herrialde gehienetan eta Japonia bezalako herrialdeetan konpentsazioen hazkundera denbora tarte handiago batean mantendu bazen ere, AEBetako joera berdina eman zen. AEBak gainontzeko herrialdeetan gertatu zen fenomenoaren aurrekaria besterik ez zen izan.

Aurretik aipatu den bezala, produktibitate hazkunderak dakarren ekoizpen handipenak kontsumo gaitasun hedatua behar du etengabe. Beraz langileen konpentsazioak izoztu arren, kontsumoa mantentzean beharrezkoa zen. Nola lortu zen kontraesan hau gainditzea? Funtzio honetarako bi mekanismo nagusi jarri ziren martxan. Lehenengoa, 70 hamarkada bukaeratik emakumearen lan indarraren lan merkatutako sarrera bultzatzea izan zen. Honen arrazoia, ez zen emakumeentzako aukera profesional paregabeak zeudela. Batzuk egongo ziren, baina ez zen arrazoi nagusia. Lan merkatuan sartu izanaren arrazoia, batez ere gainbehera zeuden familien sarrerak mantendu ahal izatea zen. Beraz ordurarteko familiako pertsona baten soldata bigarren soldata batengatik lagundua izan zen kontsumo gorakorren beharra asetzeko. Baina emakumearen lan indarraren lan merkatutako sarrerak muga agerikoa zeukan. Horregatik, beste bigarren mekanismo bat jarri zen kontsumoa ekoizpena xurgatu zedin, zorpetzea. Mekanismo hau 90ko hamarkada bukaeratik aurrera eman zen batez ere, etxebizitzaren prezioen gorakadaren ondorioz posible izan zena hein handi batean, higiezin burbuila delakoari esker.¹¹⁶ Ikusten dugun bezala, soldata errealeko izozteak ekarritako kontsumo gaitasun mugatuak alde batetik eta bestetik produktibitate gaitasun hedatuak ekarritako ekoizpen maila izan ziren 2008ko krisia ezta ezta zuten funtsetako batzuk.


Epe honetan zehar, batez ere neoliberalismoaren garaietan, egondako lan konpentsazioaren geldialdia azaltzeko aldagai interesgarria dirudi ere sindikatuen dentsitatea, hau da, langileen sindikalizazio maila aztertzea. Thatcher eta Reagan, neoliberalismoaren aurpergirik adierazgarrienak sindikatuen aurkako kanpaina indartsuak eraman zituzten aurrera.¹¹⁷ Honen

¹¹⁶ Kornbluth (2013, 54:20-59:00 min)

¹¹⁷ Reaganek sindikatuen aurkako jarrerarik bortitzena 1981ean aire kontrolatzaileen greban erakutsi zuen. Greba zeudelarik aire kontrolatzaile guztien %60a baino gehiago kanporatuak izan ziren. (Rodríguez

ondorioz langile klasearen posizio erlatiboak behera egin zuen. 7. Irudian ikusten den bezala, errentaren gaineko lan partaidetzaren murrizketa eta sindikatuen gainbehera joera berdinak izan zituzten 1973ko krisiaren geroztik.


7. Irudia. Sindikatuak eta errentaren gaineko goi dezilaren partaidetza AEBetan.



Iturria: Economic Policy Institute (2012)

Joera orokorra soldata erlatiboaren murrizketarakoa izan zen garai honetan, izan ere 8. Irudiak adieratzen duen bezala errentaren gaineko lan partaidetzak beheranzko joera argia izan du Europar Batasuneko herrialdeetan. Beraz, 73ko krisitik 2008ko krisira egondako ekoizpen sozial per capitaren hazkundea ez du aberastasunaren sortzaileen posizio soziala hobetzeko balio izan.

8. Irudia. Errentaren gaineko lanaren partaidetza Europar Batasuneko zeinbat herrialdeetan (1975-2005).




Iturria: Arpaia, Pérez eta Pichelmann (2009, 33 or.)

Suanzes, 2010) Thatcher ere kanpaina gogorrek egin zituen sindikatuen aurka, britaniar sindikatuen indar historikoa ia deuseztatuz. (Wilenius, 2004)

3.2.6. 2008ko krisiaz geroztiko joerak

2008ko krisia eta gero lanegunaren iraupenak izoztuak geratu dira, OECDko herrialdeen lanorduen murrizketa 2017ra arte %1,8koa besterik ez da izan. Krisiak laneguna murrizteko ezintasuna eragin duelaren ideia egon baitaiteke ere, denbora epe berdinean BPG per capitak %31,8ko hazkundera eta produktibitateak %8,4ko igoera izan du. Hazkunde hau ez dute soldata errealek nabaritu, hauek ere, 9. Irudiak erakusten duen bezala, ia izoztuta mantendu direlako azken urteotan.

9. Irudia. Batezbesteko soldata erreala zeinbait herrialde garatuetan 2008-2017 (2008=100).



Iturria: ILO (2019, 11 or.)

Soldata errealen estankazio honen arrazoiak jada 70ko hamarkadatik arrastaka duten joeran dagoela antzeman daiteke. Izan ere, sindikalizazio maila jaistearekin batera negoziaketa kolektiboaren barruan sartzen diren soldatak ere gutxitu dira, soldata errealen hazkunderako baldintzak okertuz.¹¹⁸

Joera guzti hauen ondorioz langile klasearen partaidetza ekoizpen sozialesan murriztu delaren aurreikuspena egin daiteke, eta hala adierazten dutela dirudi datu ezberdinek. Errentaren gaineko lanaren partaidetza mundialak behera egin du nabarmen krisiaren hasieratik eta aurretiaz noranzko horretan zeuden joerak larritu besterik ez ditu egin.¹¹⁹

Ondorio bezala atera daitekeena da, 2008ko krisiak 1970ko hamarkadatik soldata erlatiboa murrizteko joerak larritu besterik ez dela egin eta ekoizpen prozesuaren zati geroz eta txikiagoa eskuratzen dutela langileek. Honek lanegunaren murrizketan oztopo indartsua suposatzen du, ekoizpen gaitasun gorakorrek langileen bizi baldintzak hobetzera bideratzera ordez, lehia kapitalistaren joerak xurgatzen dutelako.

¹¹⁸ OECD (2012, 136 or.)

¹¹⁹ Karabarounis eta Neiman (2013, 35 or.)

4. LANORDUEN JOERAK ETA HONEN INGURUKO EZTABAIDAK

Ikusi dugun bezala, kapitalismon zehar lanorduek beherazko joera izan dute, batez ere gerra arteko ezegonkortasun garaian, zeinak kontraesan ekonomiko indartsuen artean mugitu zen, I. eta II. Mundu Gerrak beretatik 1929ko Crackera. Hau ezin daiteke soilik ekoizpen gaitasunaren hazkundearekin azaldu izan ere 1973. urtetik aurrerako urteekin alderatuta produktibitatearen hazkuntza antzekoa eman zen eta BPG per capitaren hazkundera nabari handiagoa izan da 1973. urtetik aurrera, lanorduen murrizketan geldialdia eman den garaian. Ekoizpen gaitasunaren hazkunde honek lanorduen beherazko joera errealizatzeko baldintza materialak jartzen duen arren beste aldagai batzuk izan dira erabakigarriak lanegunaren murrizketan. Bi aldagai dira nabarmentzekoak lanorduen murrizketa efektiboen arrazoiak ulertzeko.

Batetik, aipatutako produktibitate gorakorrak dakarren ekoizpen hedatu honek etekina sortzeko merkatuan errealizatzeko beharra du, hau da, kontsumitu beharra dago. Horrenbestez, nahiz eta etekina lortzearen funtsa gainbalioaren ustiaketa den, eta beraz gainlanaren zabalpen absolutu edo erlatiboa, honekin batera kontsumo maila gorakor bat behar da. Kontsumo gaitasunaren handipenak,¹²⁰ arestian aipatu bezala, zuzenki lotuta dago lan egunaren murrizketarekin. 1929ko krisia arazo honen ondorio bat izan zen, eta bere sorrera herrialdean, AEBetan, langile klasearen kontsumo gaitasuna handiarazteko New Deal bezala ezaguturiko plana hasi zen, desenplegua murrizteko lanaren banaketa ematea bezalako politikak martxan jarri zituen. Honek AEBetako historiako garairik oparoena ekarri zuen lan orduen murrizketaren ikuspegitik, urtero batezbesteko %3,4ko jaitsierarekin 1929tik 1938rako tartean.¹²¹ Politika hauek, gerora “ongizate estatuak” izango zirenen aurrekari izan ziren, II. Mundu Gerratik 73ko krisira bitarte hedapena izan zutenak.

Bestetik langile mugimenduaren indar erlatiboa legoke. Aldagai honen garrantzia ulertzeko langile mugimenduaren historia ikusi besterik ez dago, izan ere langile mugimenduak indarra izan duen garaian soldata errealean hazkunde eta lanorduen murrizpen nabaria eman da. Honen adibide garbia da gerrarteko garaia, langile mugimenduak iraultza prozesuetan sartuta zeudenean. Kontrara, langile mugimenduaren indarra gainbeherako joera hartzean, 1973ko krisialditik batez ere gertatu zena, langileen ordainketen eta lanorduen murrizpena geldialdia izateko joera eman da. Ikusterik besterik ez dago 70ko hamarkadatik eman den sindikalizazio mailaren murrizpenak langileen ordainketen gainbeherarekin duen joera ia bera dela.¹²²

Estatuek lanegunetan izan duten esku hartze legala ere, lanegunen ezarpenerako funtsezkoa, orohar langile aldarrikapenen fruitu izan dira. Hala, esku hartze estatala eta sindikalak lanegunen luzapen eta joera ezberdinak ezartzen dituzte. Kontua hartu beharra dago lanorduen inguruko datu agregatuak izaera oso ezberdinak izkutatuta ditzaketela. Herrialde industrializatueta 4 joera ezberdin ematen dira maila instituzionalaren eraginaren arabera 10. Irudiak irudikatzen duen bezala. Lehen, laneguna esku hartze legal indartsu baten bidez arautzen denean eta lanaldi partzialak lan alternatiba bezala hartzen ez diren herrialdeetan lanorduak lege ezarritako estandarretatik oso gertu kontzentratzen dira, lanaldi partzialak zein ordu luzeak erlatiboki arraroak izanik. Bigarren joera hitzarmen kolektiboen eraginez ematen da, hitzarmena eragin duen sektoreetan lanorduak honen muga kontzentratuz eta hitzarmenetik kanpoko langileak

¹²⁰ Izan soldata errealean hazkunderen forman, edo “ongizate estatuak” bermatu zuten zeharkako soldata bezala ezaguna izan den fenomenoaren bitartez.


¹²¹ Inolaz ere aise hartzeko datua, AEBetan 1870etik 2017. urtera emandako %0,39ko urteroko batezbesteko jaitsiera izan dela kontuan hartuz. (Huberman eta Minns, 2007, 548 or.) (OECD, 2019)

¹²² Kornbluth (2013, 26:00-26:30 min)

lanordu legalaren bueltan mugitzen dira. Gainontzeko bi joerak lanaldi partzial eta arautzearen sendotasunak eragindako bariazioak dira. Erregulazioa sendoa eta lanordu partzialak ohikoak direnean lanaldiak C irudiko antzeko forma hartuko dute. Lanordu partzialak ohikoak direnean eta lanegunaren erregulazioa ahula izateaz gain hitzarmen orokorrak ez daudenean, lanorduen banaketa nahiko uniforme da D irudian bezala. Kasu hauetan legeak arauturiko lanordu estandarra baino gehiago lan egiten dutenen kasua gogoangarria da.

4 joera hauetaz gain munduan beste joera batzuk ikus daitezke. Industrializatu gabeko herrialde askotan arautzearen efektibotasun ezaren ondorioz, hauek ez dira betetzen eta aparteko orduak oso zabalduta egoten dira. Azkeneko joera, F irudiak irudikatzen duena, azken honen desbideratze bat da, lan nahikorik ez dagoen herrialdeetan ematen dena.¹²³

10. Irdia. Lanorduen distribuzio mota ezberdinen adibideak.



Iturria: Lee, McCann eta Messenger (2019, 35 or.)

Lanorduen iraupenarekin jarraituz, bi faktore ere ikertzekoak dira: lan ordu luze eta laburrak. Lehenengoei dagokionez hiru ikuspegitik definitu izan dira. Langilearen osasun edo segurtasuna okertzen duten mugatik gora dauden lanorduak, legeak estandarizatututako mugen gainetik dauden orduak, eta langileen nahietatik gora dauden lanordu bezala. Aipatu dugunez badakigu lanordu luzeak aspaldiko kontua direla, izan ere, kapitalismoaren lehenengo urteetan ezarritako lanegunak hain ziren luzeak ezein langileriaren bideragarritasuna bera zalantzan jartzen ari zuten.¹²⁴ Oraindik ere, asteko 48 ordu baino gehiago lan egiten dutenen ehunekoak altuak dira herrialde askotan¹²⁵ eta industrializatu gabeko herrialdeetan ematen bada batez ere, gehiegizko lanorduak eragin nabaria dute ere herrialden industrializatueta.¹²⁶ Mundu mailako batezbesteko 42 orduko mugen gainetik dauden lanorduei begiratu gero, estimatzen da

¹²³ Lee, McCann eta Messenger (2019, 33-36 or.). A joeraren adibiderik garbien Frantzia bezalako herrialde bat litzateke. B-renak Alemania eta Austria. C forma Belgika bezalako herrialdeetan ematen da eta Erresuma Batua eta Japonia dira D irudiaren bi adibide ezagun. E joeraren adibide garbia Hego Korea da, non langileen gehiengoa arauturiko lanordu normalak baino ordu gehiago egiten dituen lan. AEBetan ere, aparteko orduen muga maximorik ez daudenez, arautzearen efektibitatea ahulduz. Azkeneko F joera batez ere industrializatu gabeko herrialdeetan ematen den joera da.

¹²⁴ Marx (1984, 287 or.)


¹²⁵ Lee, McCann eta Messenger (2019, 45-53 or.)

¹²⁶ Gorvett, Z. (2016)

enplegatuen laurdenak egiten dituela arauturiko lege estandarrak baino gehiagoko aparteko orduak.¹²⁷

Lanorduen iraupenaren txanponaren beste aldean lanordu laburrak edo partzialak daude. Lanorduen murrizketaren ikuspegitik lanaldi mota hau ideia interesgarria den arren, beste alde batetik lanordu partzialak azpienplegu mota bat izan daitezke. Aipatzekoa da emakumeek osatzen dutela lanordu mota hauetan gehiengo, lan banaketa sexuala dela eta emakumeen gain erori direlako zaintza lanak.¹²⁸

11. Irudia. Lanaldi laburren maiztasuna errenta nazionalarekin alderatuz.



Iturria: Lee, McCann eta Messenger (2019, 58. or)

11. Irudian azaltzen den bezala, enplegu mota honek ekar ditzaken soldata murrizketa bezalako alde negatiboengatik. Lanordu labur hauek U formako joera dute errentarekin alderatuz. Honen interpretaketa posible bat da, alde batetik, errenta handiko herrialdeetan lanordu partziala alternatiba bezala agertu izan dela lanordu arrunten aurrean lana eta familia, kultura, harremanen arteko uztatzea emateko. Beste muturrean, errenta txikiko herrialdeetan, kontrako aurpegia genuke. Izan ere, errenta txikiko herrialde askotan sarreraren beharren premiagatik, lan egoki baten bila langabezia egotea ez da aukera bat, edozein enplegu onartzera behartuak ikusiz, hau lan ordu laburrak eta soldata txikikoa izan arren. Indonesian adibidez, lanordu laburrak zituzten artean %58ak lanordu partziala aukera bakarra zelako zeukatela zioten, eta %26ak, emakumeak batez ere, ordu gutxiz lan egitearen arrazoia etxeko ardurak zirela azaldu zuen.¹²⁹ Datu hauek antzekoak dira, adibidez, espainiar Estatuko emakumeekin alderatzen badugu, %58,2 eta %19,9ko datuekin, hurrenez hurren.¹³⁰

Laburketa modura esan daiteke, alde batetik, lanorduak murrizteko gaitasuna produktiboa dagoen arren, honek bakarrik ez duela lanorduen murrizketa azaltzen. Eta bestetik, paradoxikoa dirudien arren, langileen %25a legezko estandarrak baino lan ordu gehiago egiten duen

¹²⁷ Lee, McCann eta Messenger (2019, 38-44 or.)

¹²⁸ Lee, McCann, eta Messenger (2019, 56-57 or.) Ezberdintasuna oso agerikoa da batez ere herrialde industrializatuetan, non lanaldi mota hau emakumeetan gizonezkoetan baino 6 aldiz ohikoagoa izatera iritsi den (Luxemburgo 40 aldiz).

¹²⁹ Lee, McCann eta Messenger (2019, 55-60 or.)


¹³⁰ INE (2017)

bitartean, langileen zati gogoangarri batek lanordu partzialak egiten ditu beste aukerarik ez dagoelako.

4.1. Lanorduak murriztearen aukerak eta eztabaidak

Laneguna murriztea aukera erreala izateko gaitasun ekonomikoak garatu behar direla agerikoa izan arren, baldintza horiek emanak daudela ikusi dugu. AEBetan adibidez, 12. Irudian agertzen den bezala, egondako ekoizpen gaitasunaren hazkundearen eraginez eta 1947an 40 orduz lan egiten ekoizten zuen kantitatea 2017an 8 orduetan ekoizten zuen.¹³¹ Beraz, 1947ko bizi kalitatea eskuratzeko egungo langile batek 8 orduz egin beharko luke lan. Egia izanik ordutik honako bizi kalitate orokorra hazi dela AEBetan produktibitatea nahikoa izan da lanorduak nabari murrizteaz gain bizi baldintzak hobetzeko.¹³²

12. Irudia. 1947an AEBetako langile batek 40 orduz ekoizten zuenaren baliokidea ekoizteko asteko lan orduak.



Iturria: U.S. Department of Labor (2001, 151 or.) eta Council of Economic Advisers (2018, 551 or.)

Produktibitatearen hazkunderak bizi baliabideak ekoizteko beharrezkoa den lan orduak murriztu dituzenez, lanaren banaketa efektibo bat ematekotan, hertsiki materialak ez diren gizartearen bizi beharrak garatzeko gaitasuna biderkatuko litzateke.¹³³ Produktibitatearen hazkunderaz gain jada lanaren banaketa efektiborako abaguneak ere badaude. Langabezia bera murriztuz lanaren banaketaren bidez edo txanponaren beste aldean aparteko lanordu ezabatuz.

Ikuspegi honekin talka egiten dute baina egungo antolakuntza ekonomikoak dakartzan joerak. Izan ere, ikerketa ezberdinek mekanizazioak ekar dezaketen lanpostuen *galera* ohartzen ari dira.

¹³¹ U.S. Department of Labor (2001, 151 or.) eta Council of Economic Advisers (2018, 551 or.)

¹³² Rauch, E. (2003)

¹³³ Izan kulturalak, denbora librea sorkuntza kulturala handituz, izan osasungintza edo hezkuntza arloan, ratioak handituz, izan harremanen ikuspegitik.

McKinsey institutuaren arabera 2030erako automozioa dela eta 400 eta 800 milioi langile artean haien lanpostuak galduko dituzte.¹³⁴ Joera honek eraginda AEB enpleguen %47a desagertuko liratekelaren iragarpenak egin dira.¹³⁵ Honek teknifikazioak langabezi kota altuetara eraman gaitzakela ikusita, bere garaian ere egon ziren jarrerak sor daitezke, hau da, teknifikazioa *gizartearen aurka* doalaren ulerkera. Baina arazoa ez dago teknifikazioan baizik eta ekoizpenaren antolakuntza sozialean. Ez dira makinak enplegua suntsitzen dutenak, makineriaren erabilera kapitalista baizik.¹³⁶ Izan ere, ikusten dugun bezala makineriaren bidez produktibitatearen hazkundera, egun, lanpostuen *galera* dakar, ez *lanorduen murrizketa*.

Lanorduen murrizketak arlo hertsiki ekonomikoan izango lituzkeen eraginaz gain, aipatzekoa da ere, lanorduen murrizketa genero auzian izango lukeen eragina. Izan ere, nahiz eta emakumeen lan indarra merkatuan sartzeak autonomia erlatibo bat eman dien, oraindik ere, lanaren banaketa sexualaren eraginez etxeko lan erreproduktiboen karga haien gain geratzen da. Zentzu honetan, lanegunaren murrizpenak etxeko lanen banaketa efektibo bat emateko aukera zabalduko luke eta honekin batera ekoizpen sozialean parekidetasunez parte hartzekoa. Beraz, emakumearen bazterketaren oinarri funtsezko bat aurreko aukera horiek ez ematean dagoenez lanaldiaren murrizpena emakumearen menpekotasun ekonomikoaren oinarriak ezabatzeke aukera da ere.¹³⁷

Lanorduen murrizketarekin, jendearen denbora faltagatik sortzen diren lanak (Agureak zaindu, umeak zaindu, txakurrak paseatu...) ere beharrik gabekoak bilakatuko lirateke, bizitzaren aspektu asko desmerkantilizatuz. Beraz, lanorduak murriztearen eraginak ezingo lirateke alderdi ekonomikora baztertu soilik, gizartean eragin sakonagoak izango lituzke.

¹³⁴ Manyika, Lund, Chui, Bughin, Woetzel, Batra,... Sanghvi (2017, 11 or.)

¹³⁵ Frey eta Osborne (2013, 37-38 or.)

¹³⁶ "Casi toda Europa experimentó, durante el siglo XVII, revueltas de los trabajadores contra el llamado Bandmühle [molino de cintas] [...]. Se requirió tiempo y experiencia antes que el obrero distinguiera entre la maquinaria y su empleo capitalista, aprendiendo así a transferir sus ataques, antes dirigidos contra el mismo medio material de producción, a la forma social de explotación de dicho medio. (Marx, 1984, 521-523 or.)

¹³⁷ Genero bazterketaren aurpegirik bortzitzena den emakumearen aurkako biolentzian honen adibide garbia da. Senar edo bikotekidearengandik biolentzia jasotzen duten emakume askok, ez dute berarengandik aldentzeko aukerarik bere erasotzailearenganako duten menpekotasun ekonomikoarengatik. (Larrauri, 2003, 278 or.)

5. ONDORIOAK

Ikusi dugun bezala, kapitalismoak prozesu produktiboan egon diren aldaketa sakonenak eragin ditu. Lanorduen arloan aldaketa sakonenak ere garai historiko honetan eman dira. Historian zeharreko lanorduen luzapenik handienak hasierako hedapen kapitalistan eman ziren bezala lanorduen beherakada nabarmena eman da langa hori behin igarota.

Ez hori bakarrik, baizik eta garai honetan zehar ekoizpen indarrek historian zehar izan duten garapenik handiena garai honetan izan dute, beharrezko lanegunaren murrizketarako oinarri ekonomikoak ezarriz. Ala ere, ekoizpen antolaketa kapitalistaren ondorioz gaitasun hauek ez dira lanordua murrizteko joera automatiko batean islatu. Kontrara, lanorduen murrizketa langile klaseak eta gainekoizpenak sortu izan dituen kontraesanen arabera moldatuz joan da.

Ibilbide honetan zehar, dena den, langile klasearen partaidetza aberastasun sozialean nabarmen behera egin badu ere eta azken hamarkadetan beheranzko joera nagusitu egin bada ere, gizarteak inoiz baino gaitasun handiagoa dauka ekoizpen jakin bat denbora laburrenean egiteko. Beraz, lanorduen murrizketa inoiz baino posibleagoa da, honek ekar ditzaken aurrerakuntza guztiekin, izan arlo ekonomikoan, kulturean, parekidetasunean...

Lanaren banaketa baten bidez lanorduen murrizketa indartsu bat eman liteke beraz, baina honetarako beharrezkoa da ekonomiaren planifikazio bat. Izan ere, kapitalismoaren joko arauekin lanorduen murrizketak gainbalioaren eta, beraz, ekonomia kapitalistaren funtsaren iturri nagusia mugatuko litzateke. Balioaren legeak agintzen duen gizarte batean etekina ateratzea izango da gizartearen motorra, eta honek logika doilor bat dakar. Marxek Ricardori aitortu bezala: "Ricardok pasarteren batean ikusten du gose garaietan zerealak inportatzen direla ez nazioak gosea pasatzen ari duelako, baizik eta ale trafikatzailerak dirua egiten ari delako."¹³⁸

Beraz, ekoizpena beharrik asetu baino, hau da ekoizpena erabilera balioak sortu baino truke balioa sortzera bideratuta dagoen gizarte batean, produktibitateak sortzen duen etekina ez du lanaren murrizketara joko, lan indarrak gainlana duen egiteko gaitasuna ahalik eta gehien zabaltzera baizik¹³⁹. Beraz, joko arau hauekin lanorduek ez dute ekoizpen gaitasunak bermatzen duten bezain laburrak izatera joko, baizik eta momentuaren arabera ekoizpen moduaren beharrei erantzutera, lanorduen murrizketa bermatzeko bestelako antolakuntza ekonomiko planifikatu baten beharra izanik.

¹³⁸ Marx (2016, 50 or.)

¹³⁹ Eralatibo edo absolutuki.

6. BIBLIOGRAFIA

- Agencia Uruguaya de Noticias (2015). Uruguay celebra centenario de jornada laboral de 8 horas. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.uypress.net/auc.aspx?64557> [Kontsultatuta: 2018ko urtarrilaren 25ean].
- Alpha History (2019). Work in Nazi Germany. [online] Hemen eskuragarri: <https://alphahistory.com/nazigermany/work-in-nazi-germany/> [Kontsultatuta: 2019ko urtarrilaren 10an].
- Altman, J. (2011). From Kunnanj, Fish Creek, to Mumeka, Mann River: Hunter-gatherer tradition and transformation in Western Arnhem Land, 1948–2009. M. Thomas eta M. Neale, Exploring the Legacy of the 1948 Arnhem Land Expedition. Canberra: ANU Press. [online] Hemen eskuragarri: <https://press-files.anu.edu.au/downloads/press/p116081/pdf/ch067.pdf>
- Arpaia, A.; Pérez, P.; Pichelmann, K. (2009). Understanding Labour Income Share Dynamics in Europe. Brusela: European Commission. [online] Hemen eskuragarri: https://mpra.ub.uni-muenchen.de/15649/1/MPRA_paper_15649.pdf
- Arrizabaló, X. (2014). *Capitalismo y Economía Mundial*. Madrid: Instituto Marxista de Economía.
- Bank of England (2019a). *Inflation Calculator*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.bankofengland.co.uk/monetary-policy/inflation/inflation-calculator> [Kontsultatuta: 2018ko abenduaren 7an].
- Bank of England (2019b). Three centuries of macroeconomic data. [online] Hemen eskuragarri: <https://ourworldindata.org/grapher/nominal-wages-consumer-prices-and-real-wages-in-the-uk-since-1750?time=1913..1935> [Kontsultatuta: 2019ko martxoaren 30an].
- Bennet, H.S. (1938). *Life on the English Manor. A Study of Peasant Conditions (1150-1400)*. Cambridge: Cambridge University Press. [online] Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/lifeontheenglish020976mbp/page/n4>
- Bergeaud, A.; Cette G.; Lecat, R. (2016). Productivity Trends in Advanced Countries between 1890 and 2012. *Review of Income and Wealth*. Bol. 62(3) (420–444 or.). [online] Hemen eskuragarri: <http://www.longtermproductivity.com/>
- Blackburn, R. (2003). Slavery – its Special Features and Social Role. L.J. Archer, *Slavery and Other Forms of Unfree Labour* (262-279). New York: Routledge. [online] Hemen eskuragarri: <https://books.google.es/books?id=zCZdfqOEdHsC&printsec=frontcover#v=onepage&q&f=false>
- Blanchard, I. (1978). Labour Productivity and Work Psychology in the English Mining Industry, 1400-1600. *The Economic History Review*, 3. bol., 1. zbk. (1-25 or.). [online] Hemen eskuragarri: https://www.jstor.org/stable/2595798?read-now=1&seq=1#page_scan_tab_contents
- Blum, J.; Cameron, R.; Barnes, T.G. (1966). *The European world; A history*. Boston: Little, Brown and Company. [online] Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/europeanworldhis00blum/page/n5>
- Boríssov, E.F., Zhamin, V.A., eta Makárova, M.F. (2009). *Diccionario de Economía Política*. [online] Hemen eskuragarri: <http://www.mijangos.byethost5.com/biblioteca/001diccionario.pdf?i=1>

- Bovey, A. (2015). Peasants and their role in rural life. *British Library*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.bl.uk/the-middle-ages/articles/peasants-and-their-role-in-rural-life> [Kontsultatuta: 2018ko martxoaren 30an].
- Boyer, R. (1983). La formación del salario en perspectiva histórica: La experiencia francesa. *Investigación Económica*, 42. bol. 164. zbk. (49-79 or.). [online] Hemen eskuragarri: https://www.jstor.org/stable/42842265?read-now=1&seq=1#page_scan_tab_contents
- Broadberry, S.; Campbell, B. M.; Klein, A.; Overton, M.; Van Leeuwen, B. (2015). *British economic growth, 1270–1870*. Cambridge: Cambridge University Press. [online] Hemen eskuragarri: <https://ourworldindata.org/economic-growth>
- Bunyan, J.; Fisher, H.H. (1934). The Bolshevik revolution, 1917-1918: Documents and materials. Londres: Stanford University Press. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.marxists.org/history/ussr/events/revolution/documents/1917/10/29.htm>
- Bureau of Labor Statistics (2017). *Estimating the U.S. labor share*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.bls.gov/opub/mlr/2017/article/estimating-the-us-labor-share.htm> [Kontsultatuta: 2018ko azaroaren 30an].
- Byles, J.B. (1872). *Sophisms of free-trade and popular political economy examined*. Manchester: J. Heywood. [online] Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/sophismsoffreetr00byle/page/n5>
- Carcopino, J. (1941). *Daily Life In Ancient Rome*. Londres: George Routledge And Sons Ltd. [online] Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/dailylifeinancie035465mbp/page/n7>
- Carpenter, M.R. (2014). Life as a Slave in Ancient Rome. [online] Hemen eskuragarri: http://xhsgiglio.weebly.com/uploads/4/0/1/9/40190329/life_as_a_slave_in_rome.pdf
- Cartwright, M. (2013). Slavery in the Roman World. *Ancient History*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.ancient.eu/article/629/slavery-in-the-roman-world/> [Kontsultatuta: 2018ko azaroaren 10an].
- CIS (2019a). *Macrobarómetro de Marzo 2019. Preelectoral elecciones generales 2019. Navarra*. [online] Hemen eskuragarri: http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3240_3259/3242/es3242mar_15_NAV.pdf [Kontsultatuta: 2019ko ekainaren 7an].
- CIS (2019b). *Macrobarómetro de Marzo 2019. Preelectoral elecciones generales 2019. País Vasco*. [online] Hemen eskuragarri: http://www.cis.es/cis/export/sites/default/-Archivos/Marginales/3240_3259/3242/es3242mar_16_PVA.pdf [Kontsultatuta: 2019ko ekainaren 7an].
- Clastres, P. (1989). *Society Against the State. Essays in Political Anthropology*. New York: Zone Books. [online] Hemen eskuragarri: http://www.burmalibrary.org/docs21/Clastres-1989-Society_Against_the_State-en-red.pdf
- Credit Suisse (2018). *Global Wealth Report 2018*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.credit-suisse.com/corporate/en/articles/news-and-expertise/global-wealth-report-2018-us-and-china-in-the-lead-201810.html>
- Dumézil, G. (1980). *Camillus: A Study of Indo-European Religion as Roman History*. Berkeley: University of California Press. [online] Hemen eskuragarri: https://archive.org/details/bub_gb_GLVpSyzhto0C/page/n3
- Economic Policy Institute (2012). *As unions decline, inequality rises*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.epi.org/press/unions-decline-inequality-rises/> [Kontsultatuta: 2019ko otsailaren 15an].
- Economic Policy Institute (2018). *The Productivity–Pay Gap*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.epi.org/productivity-pay-gap/> [Kontsultatuta: 2019ko otsailaren 15an].

- Council of Economic Advisers (2018). Economic Report of the President. [online] Hemen eskuragarri: https://www.whitehouse.gov/wp-content/uploads/2018/02/ERP_2018_Final-FINAL.pdf
- Engels, F. (1955). El origen de la familia, la propiedad privada y el Estado. K. Marx eta F. Engels, *Obras Escogidas en Dos Tomos* (168-325 or.). Mosku: Progreso.
- Erumban, A.A.; Vries, K. de. (2016). *Wage-Productivity Growth Gap: An Analysis of Industry Data*. New York: Economics Program. [online] Hemen eskuragarri: https://pdfs.semanticscholar.org/adfe/51cfda7afbaa4ee09ef407f4e4332fb6814c.pdf?_ga=2.73019419.961629424.1559751262-64344936.1559751262
- Frey, C.B.; Osborne, M.A. (2013). *The Future of employment: How susceptible are jobs to computerisation?*. [online] Hemen eskuragarri: https://www.oxfordmartin.ox.ac.uk/downloads/academic/The_Future_of_Employment.pdf
- Gorvett, Z. (2016). Qué es el "karoshi", la muerte por exceso de trabajo que en Japón es un problema de salud pública. *BBC*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.bbc.com/mundo/vert-cap-37391172> [Kontsultatuta: 2019ko otsailaren 15an]
- GPIHG (2010). *Roman Empire 14 CE, Income distribution*. [online] Hemen eskuragarri: <http://www.ub.edu/histecorecursos/node/189>
- Harris, M. (1974). *Vacas, cerdos, guerras y brujas*. Madril: Alianza. [online] Hemen eskuragarri: <http://www.fcolombiahumana.org/backend/files/documentos/referencias/8/20160301144408.pdf>
- Hobsbawm, E. (2003). *Del Feudalismo al Capitalismo*. E. Hobsbawm, *La era de la revolución*. Bartzelona: Crítica. [online] Hemen eskuragarri: [http://www.afoiceemartelo.com.br/posfsa/Autores/Hobsbawm,%20Eric/Hobsbawm,%20Eric%20-%20Del%20Feudalismo%20Al%20Capitalismo%20\[Art\]\[Spa\].pdf](http://www.afoiceemartelo.com.br/posfsa/Autores/Hobsbawm,%20Eric/Hobsbawm,%20Eric%20-%20Del%20Feudalismo%20Al%20Capitalismo%20[Art][Spa].pdf)
- Hodges, V. (2016). *A journey in chains: A study of the Ancient Roman Slave*. College Station: Texas A&M University. [online] Hemen eskuragarri: <https://oaktrust.library.tamu.edu/bitstream/handle/1969.1/157697/HODGES-DOCUMENT-2016.pdf?sequence=1>
- Hubbert, M.K. (1940). *Man Hours and Distribution*. [online] Hemen eskuragarri: <https://es.scribd.com/document/22289589/Man-Hours-and-Distribution-M-King-Hubbert>
- Huberman, M.; Minns, C. (2007). The times they are not changin': Days and hours of work in Old and New Worlds, 1870–2000. *Explorations in Economic History*, 44 (538–567). [online] Hemen eskuragarri: https://personal.lse.ac.uk/minns/Huberman_Minns_EEH_2007.pdf
- Humboldt, A. (1972). *Political essay on the kingdom of New Spain*. New York: Knopf. [online] Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/politicalessayo00humbgoog/page/n10>
- ILO. Hours of Work (Industry) Convention (1919). Washington. [online] Hemen eskuragarri: https://www.ilo.org/dyn/normlex/en/f?p=NORMLEXPUB:12100:0::NO::P12100_ILO_CODE:C001 [Kontsultatuta: 2018ko apirilaren 18an].
- ILO (2019). *Global Wage Report 2018/19*. Geneva: ILO. [online] Hemen eskuragarri: https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms_650553.pdf
- ILO; OECD (2015). *The Labour Share in G20 Economies*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.oecd.org/g20/topics/employment-and-social-policy/The-Labour-Share-in-G20-Economies.pdf>
- INE (2017). *Razones del trabajo a tiempo parcial de las mujeres. España y UE-28. (De 15 y más años)*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=10927>

- Karabarbounis, L.; Neiman, B. (2013). The Global Decline of the Labor Share. Chicago: University of Chicago. [online] Hemen eskuragarri: <https://faculty.chicagobooth.edu/brent.neiman/research/KN.pdf>
- Keynes, J.M. (1933). Economic Possibilities for our Grandchildren (1930). J.M. Keynes, *Essays in Persuasion*. Londres: MacMillan and Co., 358-373. [online] Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/in.ernet.dli.2015.89977/page/n9>
- Knoop, D.; Jones, G.P. (1933). The Medieval Mason. An Economic History of English Stone Building in the Latter Middle Ages and Early Modern Times. Manchester: Manchester University Press. [online] Hemen eskuragarri: <https://socialsciences.mcmaster.ca/econ/ugcm/3ll3/knoop/MediaevalMason.pdf>
- Kornbluth, J. (2013). *Inequality For All* [Video]. AEB.
- Larrauri, E. (2003). *¿Por qué retiran las mujeres maltratadas las denuncias?*. Revista de derecho penal y criminología, 2. garaia, 12. zbk. (271-307 or.). [online] Hemen eskuragarri: <http://e-spacio.uned.es/fez/eserv/bibliuned:revistaDerechoPenalyCriminologia-2003-12-5090/Documento.pdf>
- Lee, R. (1981). La subsistencia de los bosquimanos ¡Kung: Un análisis de input-output. J.R. Llobera, *Antropología económica* (35-63 or.). Bartzelona: Anagrama. [online] Hemen eskuragarri: <https://circulodeestudiosantropologicos.files.wordpress.com/2012/08/lee-r-b-la-subsistencia-de-los-bosquimanos-kung.pdf>
- Lee, S., McCann, D., eta Messenger, J. (2019). *Working Time Around the World*. Geneva: ILO. [online] Hemen eskuragarri: https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@dgreports/@dcomm/@publ/documents/publication/wcms_104895.pdf
- Luxemburg, R. (1974). *Introducción a la economía política* (2. ed.). Madrid: Siglo XXI.
- Macrobio (2010). *Saturnales*. Madril: Gredos. [online] Hemen eskuragarri: <https://vdocuments.site/macrobio-saturnales.html>
- Maddison, A. (2006). The World Economy: A millennial perspective. Paris: OECD. [online] Hemen eskuragarri: <http://www.theunbrokenwindow.com/Development/MADDISON%20The%20World%20Economy--A%20Millennial.pdf>
- Maddison Project Database (2018). Rebasng 'Maddison': new income comparisons and the shape of long-run economic development. *Maddison Project Working paper 10*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.rug.nl/ggdc/historicaldevelopment/maddison/releases/maddison-project-database-2018> [Kontsultatuta: 2018ko otsailaren 20an]
- Manyika, J.; Lund, S.; Chui, M.; Bughin, J.; Woetzel, P.; Batra, R.;... Sanghvi, S. (2017). Jobs lost, jobs gained: What the future of work will mean for jobs, skills, and wages. *McKinsey Global Institute*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.mckinsey.com/featured-insights/future-of-work/jobs-lost-jobs-gained-what-the-future-of-work-will-mean-for-jobs-skills-and-wages>
- Marinello Bonnefoy, J.C. (2014). *Sindicalismo y violencia en Catalunya (1902-1919)*. Universitat Autònoma de Barcelona. [online] Hemen eskuragarri: https://ddd.uab.cat/pub/tesis/2014/hdl_10803_285135/jcmb1de1.pdf
- Marx, K. (1984). *El Capital* (15. ed.). Madril: Siglo XXI.
- Marx, K. (2016). *Contribución a la Crítica de la Economía Política*. Iztapalapa: Siglo XXI.
- Miller, M. (1980). Working Women and World War II. *The New England Quarterly*, 53. bol., 1. zbk. (42-61 or.). [online] Hemen eskuragarri: https://www.jstor.org/stable/365288?seq=1#page_scan_tab_contents

- Mills, F.C. (1934). Introduction. H. Jerome, *Mechanization in Industry* (xxi-xxxi or.). New York: NBER. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.nber.org/chapters/c5239.pdf>
- National Industrial Conference Board (1921). Wages in Great Britain, France and Germany. New York: The Century Co. [online] Hemen eskuragarri: <https://babel.hathitrust.org/cgi/pt?id=uc2.ark:/13960/t8jd50k4j&view=1up&seq=1>
- OECD (2012). Labour Losing to Capital: What Explains the Declining Labour Share?. *OECD Employment Outlook 2012*, (109-161 or.). [online] Hemen eskuragarri: http://www.oecd.org/els/emp/EMO%202012%20Eng_Chapter%203.pdf
- OECD (2019). Hours Worked. *OECD data*. [online] Hemen eskuragarri: <https://data.oecd.org/emp/hours-worked.htm> [Kontsultatuta: 2019ko otsailaren 15an]
- Oxfam (2018). *Premiar el trabajo, no la riqueza*. [online] Hemen eskuragarri: <http://oxfamintermon.s3.amazonaws.com/sites/default/files/documentos/files/premiar-trabajo-no-riqueza.pdf>
- Pérez, P.M. (2005). *Poder adquisitivo y calidad de vida de los trabajadores vizcainos, 1876-1936*. [online] Hemen eskuragarri: http://www.usc.es/estaticos/congresos/histec05/a1_perez_castroviejo.pdf
- Piketty, T. (2014). *El Capital en el Siglo XXI*. Cambridge: Belknap Press. [online] Hemen eskuragarri: <https://cronicon.net/paginas/Documentos/Piketty-El-capital-en-siglo-XXI.pdf>
- Prados de la Escosura, L.; Rosés, J.R. (2003). Wages and labor income in history: A survey. Madril: Universidad Carlos III. [online] Hemen eskuragarri: https://www.researchgate.net/publication/4724445_WAGES_AND_LABOR_INCOME_IN_HISTORY_A_SURVEY#pf12
- Rauch, E. (2003). *Debate on workweek reduction*. [online] Hemen eskuragarri: https://groups.csail.mit.edu/mac/users/rauch/misc/worktime/workweek_debate.html [Kontsultatuta: 2019ko martxoaren 7an]
- Roberts, M. (2017). Towards a world rate of profit – again. [online] Hemen eskuragarri: <https://thenextrecession.wordpress.com/2017/09/09/towards-a-world-rate-of-profit-again/> [Kontsultatuta: 2019ko urtarrilaren 23an]
- Rodríguez Suanzes, P. (2010). La mano dura de Reagan con los controladores. *El Mundo*. [online] Hemen eskuragarri: <https://www.elmundo.es/mundodinero/2010/12/03/economia/1291403065.html> [Kontsultatuta: 2019ko otsailaren 15an]
- Rogers, J.E.T. (2001). Six Centuries of Work and Wages: The History of English Labour. Kithener: Batoche Books. [online] Hemen eskuragarri: <https://socialsciences.mcmaster.ca/~econ/ugcm/3ll3/rogers/sixcenturies.pdf>
- Schor, J. (1993). The overworked American: The unexpected decline of leisure. New York: Basic Books. [online] Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/overworkedameric00juli/page/n7>
- Scullard, H.H. (1981). Festivals and ceremonies of the Roman Republic. New York: Cornell University Press. [online] Hemen eskuragarri: https://books.google.es/books/about/Festivals_and_ceremonies_of_the_Roman_Re.html?id=bDETAQAAIAAJ&redir_esc=y
- Sirvent, P.G. (1981). Aspectes organitzatius i laborals del sindicalisme a Catalunya. *Classe Obrera i Sindicats a Catalunya (1903-1920)*. Universitat de Barcelona. [online] Hemen eskuragarri: http://www.cedall.org/Documentacio/IHL/Gabriel/Pere%20Gabriel_Cap03_01a.pdf

- Sismondi, J.C.L. (1837). *Études sur l'Économie Politique*. Paris: Chez Treuttel et Würtz. [online] Hemen eskuragarri: <https://archive.org/details/tudessurlconomi02sismgoog/page/n57> [Kontsultatuta: 2019ko ostailaren 10ean].
- Smith, A. (2007). *An inquiry into the nature and causes of the wealth of nations*. MetaLibri. [online] Hemen eskuragarri: https://www.ibiblio.org/ml/libri/s/SmithA_WealthNations_p.pdf
- Ste. Croix, G.E.M. de. (1988). *La lucha de clases en el mundo Griego Antiguo*. Bartzelona: Crítica. [online] Hemen eskuragarri: <https://es.scribd.com/document/272957443/G-E-M-de-Ste-Croix-La-Lucha-de-Clases-en-El-Mundo-Griego-Antiguo>
- U.S. Department of Labor (2001). *Report on the American Workforce*. [online] Hemen eskuragarri: <https://digitalcommons.ilr.cornell.edu/cgi/viewcontent.cgi?referer=https://www.google.com/&httpsredir=1&article=1089&context=globaldocs>
- Wilenius, P. (2004). Enemies within: Thatcher and the unions. *BBC*. [online] Hemen eskuragarri: http://news.bbc.co.uk/2/hi/uk_news/politics/3067563.stm [Kontsultatuta: 2019ko otsailaren 15an]
- Wolman, L. (1938). *Hours of Work in American Industry*. New York: National Bureau of Economic Research. [online] Hemen eskuragarri: <https://core.ac.uk/download/pdf/6876387.pdf>
- Zeisel, J.S. (1958). The Workweek in American Industry 1850–1956. *Monthly Labor Review*, 81. bol., 1. zbk. (23-29 or.). [online] Hemen eskuragarri: https://www.jstor.org/stable/41833823?seq=1#page_scan_tab_contents

